

Giza eskubideen inguruan

En torno a los derechos humanos

ezta
baida

Juan San Martin | 0 | 0 | 2

ELKARLANEAN

Azalaren diseinua: Borja Goitia
Azaleko irudia: Unai San Martin

© Juan San Martin
© ELKARLANEAN S.L. 2000
L.G. NA. 2.160/2000
ISBN 84-8331-667-6

Elkarlanean S.L. Argitaletxea
Portuetxe kalea, 88 bis
20018 Donostia
Tel. 943 31 02 67
Fax: 943 31 02 16

elkarlanean@elkarlanean.com
www.elkarlanean.com

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L., Tafallarako bidea 1. km - Villatuerta (Nafarroa)

HITZAURREA

Euskal herritarrok inora joan beharrik ez dugu giza eskubideak zer diren jakiteko. Historian zehar, bertako seme-alabengandik adibide eredugarriak ez zaizkigu falta, eta horiek ikasi eta jarraitu beharrekoak iruditzen zaizkit.

Gure hizkuntzak betidanik kezkatuak eduki nauenez, historian zehar izan dituen gorabeherak azaldu nituen *Euskararen ostarreak* (1998) izenburudun liburuan, edonoren jakinbiderako egokia iruditzen zitzaidan eran. Politikariek maizegi nahasi izan dute hizkuntzen naturtasuna, eta horregatik adierazi zigun Nazio Batuen Erakundeak nola elkar errespetatu, NBEk (ONUK) 1948an agertu zuen adierazpen hartan. Hortik behar genuke abiatu, elkar errespetatu eta errespetaraziz.

Nire kezkak mugiturik, giza eskubideen inguruari buruzko lan honetan Euskal Herriko semeen emaitzak eskaintzeaz gainera, bidezko zait berriz ere hizkuntzaz arduraturik heldu den urteari begira zuzentasuna gogoratzea. Izan ere, Europako Batasunaren Batzordeak "Hizkuntzen Urtea" izendatu du heldu den 2001garrena, hizkuntz aniztasuna Europako ondarearen aberastasunik funtsezkoenetako bat dela eta etorkizunean ere izan behar duela adierazi nahian.

Euskarari buruzkoa, zalantzarik gabe, gure herriaren nortasunik bereziena dugu. Aldi berean, preindoeuropar

bezala hemen sustraitua denez gero, Europako hizkuntza zaharrenetarikoa dugu. Horregatik zioen Antonio Tovar hizkuntzalari irakasleak: “Es una lengua prehistórica, una lengua profundamente arraigada en el suelo, y es la única que se ha conservado al oeste de Eurasia desde la conquista de nuestro continente por los indoeuropeos”.

Ramón Menéndez Pidal zenak, berriz, Eusko Ikaskuntzaren eskariz 1921ean Bilbon eskaini zuen hitzaldi hartan beste honako aitorpen hau egin zuen: “Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida”.

Baina gizon zintzo eta jakitun haiengandik era horretako iritzi gehiago jaso genezake. José Ortega y Gasset filosofo aipatuagandik ere beste honako adibide hau jaso dezakegu: “No hay tierra en España más cuidadosamente labrada, ni más limpias aldeas, ni ciudades mejor urbanizadas. El vasco acepta rápidamente los inventos mecánicos de la moderna civilización; pero, a la vez, conserva irreductible en su pecho el tesoro de viejísimas normas religiosas y políticas. Yo no creo que exista en Europa un pueblo de más acendrada moralidad. Rectilíneo de alma como de rostro, el vasco es una de las más nobles variaciones que en Occidente ha dejado la voluble planta de Adán” (*El espectador*, 380. or.).

2001.ean, Hizkuntzen Urtearen helburuak bat baino gehiago izango omen dira. Batetik, hizkuntz aniztasunak

Europako Batasunaren barnean berez dakarren ondare aberastasunaz europarrak jabeaztea eta, bestetik, hizkuntzen ikasketak bizitza osoan bultzatzea. Horrez gainera, hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko informazio guztiak bildu eta zabalkundez eskaintzea izango omen da bere lana.

Frantziaren partetik Europako Kontseiluak aurkeztu zuen Eurogutuna onartuko ote da? Hala behar luke Europako Hizkuntzen Urtea delarik. Politikariek kontutan hartuko ote dute? Hala behar lukete¹. Beren buruak abertzaletzat dituzten askok ere hobe dute euskara ikastea eta erabiltzea. Eta federalistatzat azaltzen diren sozialistek ere, azalpen horren arabera, hobe dute bi hizkuntzak ofizial diren Autonomia Elkargoan, hezkuntzari dagokion ekintza sailean, euskararen D eredia onartu. Horrela erakutsiko lukete federalismoaren ongi betetzea. Zeren, hemen bake biderantz abiatuko bagara, bi hizkuntzak ditugu beharrezko.

Ez bakarrik elibitasuna onartu, baizik, ONU erakundearen arabera, gaur egun hain beharrezko diren teknika eta tresneriei ere bere lekua eskainiz. Arestian aipatu dudan Antonio Tovar hizkuntzalariak *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* liburuan ongi zioen bezala: “En un mundo moderno sólo los medios modernos (escuela y grados superiores de educación, radio y televisión, etc.) pueden asegurar la conservación de la lengua”.

Izan ere, gehiegi eskatzea ote da milaka urtetan iraun duen hizkuntzaren alde?

1. 1999. urte bukaeran onartu zuten Eurogutuna, baina Frantzian bertan ez du baliapenik Konstituzioaren 2. artikulua aldatu ezik.

Liburu honen edukiari buruz, Euskal Herriko Unibersitatetik, Henrike Knörr adiskidearen eskariz, J. L. Alvarez Enparantza Txillardegiri bere erretiroa dela-eta eskaini nahi dioten elkarlaneko bildumarako deia jaso nuenean idatzi nuen “Euskal Herritik giza eskubideen alderako emaitzak”. Eta Adrian Celaya Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País) Bizkaiko batzorde arduradunak 1999ko azaroaren 20ko jardunaldiatarako hitzaldi bat eskatu zidanean “Aportación vasca a los derechos humanos” prestatu nuen. Antolaketaren arabera, bi lanok nituen denboraz eta neurritz mugatuak. Horregatik orain hemen bi lanok gehigarri eskaintzen ditut.

Bestalde, Euskaltzaindiaren eskarizko txostena prestatu nuen, 1999ko irailaren 25ean Aramaion aurkezteko: “Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera” eta hemen jasotzen dut eman nuen bezala, gehigarri gabe.

Europako Batasunari buruz, kezkatu baina itzaropentsu agertu nuen “Ante la perspectiva europea. La Unión de Europa y el problema lingüístico” zeritzan artikulua, 1966ko urtarrilean, Club Deportivo Eibar bazkunaren *Kezka* aldizkarian. Bereziki, Frantziak zekarren aldakuntzan oinarritzen nintzen. Baina ondoko politikariek gauzak ez dituzte behar bezala eraman giza eskubideei dagozkienetan. Jaramon gutxi egin zaio Deixionne legerari, eten eta deuseztu dituzte lege horren arabera A. Chamson, M. Legris eta P. Sérant jaunek erakutsi zizkiguten itzaropen bikainak, eta jaramon gutxiago egin diote 1953ko Unescoren gomendiozko *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* delakoari. Horregatik, hor egon da geldi 1992an Europako Kontseiluan aurkeztu zen Eurogutuna.

Azken urteotako jokabide bihurriak ikusteaz, badakigu gauzatzea ez zaigula hain erraza izango, berrogei urtetako diktadurak bere eragina izan du eta belaunaldi honetako guztiok zerbait ukiturik utzi gaitu. Honetaz 1998ko irailaren 27ko *Egunkaria*-n “Su-etena” izenburudun artikuluan eman nituen zenbait iritzi, ETA eta GALen arteko borrokak salatuz. Izan ere, nire ustez, historian zehar giza eskubideen alde hain iritzi zintzoak eskaini zituzten Euskal Herriko semeek argi utzi baitziguten bakoitzaren pentsaerak errespetagarri direla; baina, gezurra badirudi ere, hor daude lekuko ideia desberdinetakoen hilketak. Non da hemengo kristautasuna? Non Euskal Herriko hainbeste seme-alaba eredu-garri adierazi ziguten bide egokia? Guztiok dugu bizitzeko eskubidea eta, ezbairik gabe, inork eta ezergatik ez du beste bati bizia kentzeko eskubiderik. Behin eta berriz oihu egin beharrean gaude: hilketarik ez, indarkeriarik ere ez, eta kale borrokak baztertu.

Alde horietatik begiraturik doa honako liburu honetan biltzen dudana, uste dudalarik zentzuzko arrazoirik aski badugula edonon aurkezteko, hilketarik gabe eta indarkeriarik gabe noski, zeren gauza guztien gainetik, lehen lehenik gizakia jarri behar dugu, edonongo gizakia. Eta ideia kontuak, Aita Vitoriak ongi zioen bezala, itsutasunik gabe, elkarrizketaz bideratzeko ahaleginak eginaz aurrera joan gintezke.

Euskal Herriak maitasunezko eraikuntzak behar ditu, ez kale borrokaren hondamenak. Ekintza eraikitzaileak, ez hondatzaileak.

Jarraian datozen kapituluetan adibiderik aski eskaintzen dut. Lehenik euskararen jatortasunez, zeren, esan dudan bezala, euskarak, preindoeuroparra izatez, Europako hiz-

kuntza jatorra eta zaharrena edo zaharrenetakoa izanik, Europaren batasunean bere baitarik du, inoren baimen beharrik gabe, bizitzaz irauteko eskubide osoa. Aurten bertan Espainiako Auzitegi Gorenak UEMA erakundeari euskararen alde zituen asmoak debekatzea ere ez da lotzen ONU eta Unesco-ren arauekin. Zertarako dira orduan erakunde nagusi horiek bakebiderako onartu zituzten gomendioak? Jaramonik ezak nora garamatza? Gainera, gure Euskal Herriari, bertako estatutuaren arabera, gaztelera eta euskara biak ofizialak direnez, Eusko Jaurlaritzak du erabakia hartzeko eskubide osoa, ez Madrilgo Auzitegi Goren horrek.

Ondoren, historian zehar gure *Lingua Navarrorum* zeritzanak izan duen zoritxarra noiztik eta nola izan duen eta jarraian Araban euskara, zigorpeturik, zerk eta nola eraman zuen atzeraka. Guztion jakinerako, lekukoak hor daude. Garai bateko pedagogia trebea benetan, alajaina, heziketaren orde izuketa.

Hezierarik ezaz noski, demokraziaren heldutasunik eza gure egunotan nabari zaigu, Uda-Treviñoren kasuan argi azaltzen zaigunez. Bestalde, epaitegietan gure hizkuntzak duen sarrerarik ezaren lekukotasunak ematen ditugu eta horren arabera norbere burua behar bezala zuzen defendatu ezinarenak. Hori ere giza eskubideen aurka doa.

Gero, Europako Kontseiluak prestatuturiko Eurogutuna zer den, Frantziaren betoa zertan den, eta onartzeaz zer egingo duen.

Irakurri berri dut Ernest Lluch-ek Donostiako *El Diario Vasco*-n aurtengo martxoaren 25ean agertu zuen “Sin ser nacionalista” zeritzan artikulua interesgarria. Besteak beste, hala zioen: “Ahora, afortunada y finalmente, Francia ha fir-

mado la Carta Europea de los Derechos de las Lenguas Minoritarias. Una firma que tiene aspectos que rozan la inconstitucionalidad a causa del exclusivismo lingüístico francés en la Constitución. Pese a estas dificultades el actual gobierno ha ofrecido a las escuelas que enseñan vascuence, catalán o bretón en Francia su integración en la red de escuelas públicas con el prestigio que éstas tienen en este país. Lamentablemente las condiciones económicas ofrecidas son insostenibles. Actuar culturalmente, para que esta línea se ensanche, debe ser la escogida como relativamente más eficaz”. Baina, azken mendeotako politika ikusirik eta Konstituzioa aldatu ezik, arriskuak hor daude, makiavelokeriaz baliatzen badira. Dena dela, horretarako biderik aukerakoena, gurasoei aukera ematea dela deritzat, eskola libreetan jarraitu nahi dutenei horretan utziaz. Jarraian dio E. Lluch-ek: “Son tareas tan oscuras como eficaces si se quiere establecer la normal colaboración entre territorios contiguos y con elementos sociales comunes”. Eta, ondo ari zen esaten zuelarik: “Lo lingüístico, lo cultural y lo económico deben tener un papel primordial”. Hala behar luke. Eta, ordua dugu inora ez garamatzan indarkeria kaltegarriak alde batera utzirik arrazoi bidez aurrera joateko.

Historiagileak historia ezagutu beharra agertzen dut, zeren asko dira historian lizentziatuak, baina badira batzuk, alde guztiak irakurri gabe, lekukotasunen faltaz historia oker erabiltzen dutenak. Hortaz, adibideetarik bat jasotzen dut zenbaitek jakin dezaten.

Baina, horiek guztiok bideratzeko asmoz, azkenik gazte-leraz eta euskaraz aurkezten dut 1948an Nazio Batuen Erakundeak agerrarazi zuen “Giza Eskubideen Adierazpen

Unibertsala”. Hori baitugu arrazoi biderako tresna egokia, eta horretan oinarriturik joan ezinik ez dugu.

Bukatzeko, Euskal Herritik begiraturik, gai honi guztiari buruzko bibliografia orokorra eskaintzen dut. Bereziki nire ideiak oinarritzeko eta ahalik ondoen finkatzeko erabili izan ditudanak.

EUSKAL HERRITIK GIZA ESKUBIDEEN ALDERAKO EMAITZAK

Zoritxarrez, ez dira hain ezagunak Euskal Herritikako giza eskubideen aldeko emaitzak eta on deritzat nik neuk ezagutzen ditudanen heinean agertzeari. Zeren euskal herritarrok zuzen aurrerantz jokatzeko hor ditugu ereduak.

Frantzisko Vitoriakoa

Hasteko, Aita Frantzisko Vitoriakoa izango da, noski, ezagutzen direnen artean lehena, sakonena eta mundu zabalera begira zabalduena edo ezagunena. Bere bataiozko izen-deituraz Frantzisko de Arkaia zen, arabarra, familiaz ganboarren leinukoa, 1483. urte inguruan jaioa. Baina ez gaude ziur Gasteizen jaioa ote zen. Bere anaia gazteagoa, Diego, Burgosen jaioa baitzen eta zenbaitek uste dute han jaioko zela Frantzisko bera ere. Baina ez dugu horren lekukotasun zehatzik. Aita merkataritzan aritu zen eta Gasteiz eta Burgos izan zituen bizileku. Baina gogoan izan behar dugu, hezkuntzaren aldetik, feudalismo garai hartan familiak eta jatorriak zerikusi handiagoa zutela jaioterriak baino. Horregatik, bi anaiok Dominikoen ordenan sartzean, Vito-

ria hautatu zuten deituratzat, jatorriaren lotura jarraitzeko asmoz, noski.

Frantziskok, hamalau urte baino gehiagoz, 1508tik 1522ra arte, Parisen egin zituen ikastaroak, eta ondoren Sorbonako Unibertsitatean irakasletzan. Handik itzultzean, lehenik Valladolid hiriko Unibertsitatean katedradun Humanitate gaian eta ondotik Salamancan.

Bere gizatasun berezia Parisen erakutsi zuen, teologo bezala Elizaren goi mailetaraino ospe eta itzal eraginkorra lortuz eta ziurtatuz. Han zelarik hain zuzen, 1527. urtean, Rotterdam-eko Erasmok idatzi zion Luis Vivesi, honek Frantziskoren gizatasuna Inkisizioaren aurrean bitartekaritzat har zezan, zeren, haren anai Diegok ere heretikotzat joa baitzuen Erasmo.

Salamancako katedran irakaskuntza lan ona bete zuen, bereziki Ameriketara indioekin egiten ari ziren gehiegikeriak, Frai Bartolomé de Las Casas misiolariaren salakuntzetan oinarriturik, bere iritzien gogoetetan osatzean, *Relectiones* zirelakoak burutuz. Bere hitzaldi haietara joaten ziren Zuzenbidean aritzen ziren ikasleak ez ezik zenbait irakasle ere, hauen artean Martin Azpilkueta nafarra. Hitzaldi haietako azkenengoak, 1539. urtean, *De indis* eta *De iure belli* deritzen saioak, garrantzitsuenetarikoak izan ziren.

1546an hil zen Vitoria maisu handia, eta aipaturiko bi lanok, ikasle izan zituenean, beraiek jasotako oharrak eta maisuaren zenbait izkribu bilduz eta osatuz, Frantziako Lyon-en inprimatzaile ospetsua zen Jacques Boyer jaunari eman zitioten. Eta honek bi liburukitan argitara eman zituen 1557. urtean. Horregatik, bere ahozko ikasgaiak dizipuluek jaso

eta ezagutarazi zituztelako, Frantzisko Vitoriari maiz eman zitzaion Sokrates izengoitia.

Egia esan, Gaio Erromako juristaren *Instituta* liburutik jaso zuen “Ius Gentium” zuen lehen oinarritzat. Gaiok berak esaten zuenez, “Zuzenbidea, legez eta usadioz hornituriko herri guztietan, alde batetik berena delarik, aldiz gizaki ororena da. Horregatik, herri bakoitzean beretzat emana, propioa da, eta zuzenbide zibila deritza, hiriaren zuzenbidea balitz bezala. Alabaina, arrazoi naturalak gizaki oren artean sorturikoa, herri guztiek berdin betetzen dutena, jendeen zuzenbidea da, hots, nazio guztientzako zuzenbidea”.

Baina, Aita Frantzisko Vitoriakoak, haruntzago joanaz zioen: “Legeak betearazlea izan dadin behar du zuzen, biziduzko, onartua, guztientzat berdina eta errepublikarentzat baliagarria, *coeteris paribus*, ez batarentzat zorrotz eta bestearentzat lasai”. (*Ad hoc quod lex obliget, oportet quod sit iusta, honesta, tolerabilis, aequa et utilis republicae, quod non gravet unum magis quam alium, coeteris paribus*).

Adibidez, beste esaldi hauek ere azaltzen zizkigun: “Bertutea ez dago gogo hutsean, egintza gauzatzean baiduz” (*Virtus non consistit proprie in desiderio, sed in executione actus*); “... ez da zilegi inongo agintaritzaren izenean errugaberik hiltzea” (... *non licet interficere innocentum quacumque autoritate*).

Idea horiek, gaur egungo gizartearen egoeraz gogoeta egiteko bidea bederen emango ahal digute. Hala nahi genuke eta hala bedi.

Aita Vitoriaren Salamancako irakaskuntza haiek, Hugo Grocio holandarrak sistematizaturik jarri zituenetik, mundu

guztian ospe handia hartu zuten giza eskubideen alde. Gerroztik, zehaztasunez, argi eta garbi eratu dira gizakion esku-biderako.

Horregatik ez da harritzekoa Geneban Nazioen Elkarte-ko jauregiaren gela nagusia Vitoriari eskainia egotea, J. M. Sert katalanak margotua, Vitoriaren irudia mundu guztiko juristentzat Zuzenbidearen eredu eta gidari bezala aurkeztuz.

Arartekotzan nengoenlarik, 1993ko urriaren 27tik 30era bitartean, Europako Ombudsmanen hitzaldiak antolatu ginituen Gasteizen, eta une ona bezain egokia iruditu zitzaidan aldi berean Aita Frantzisko Vitoriakoa omentzeko, pertsonaia hau bertakoek zein erbestekoek hobeto ezagutu zezaten. Etorri ziren ombudsmanik gehienek bazekiten nor zen eta giza eskubideen alde zer lan burutu zuen; baina orduarte gutxik zekiten jatorriz hemengoa zela eta guztiek oso pozik hartu zuten hainbesteko merezimenduz eskaini genion omenaldi hura.

Martin Azpilkueta

Martin Azpilkueta (1492-1586), Doktor Nabarro bezala ezagutzen dena dugu beste gizon gogoangarri bat. Aurreko-arekin lotuz, Salamancan Aita Vitoriaren hitzaldietara joaten zen eta bere ekintza eta lanetan haren eragina nabari du.

Frantziako Tolosan egin zituen lehen ikastaroak. Batez ere Zuzenbide Kanonikoan burutu zuen lana du aipagarriena. Orreagako Priorea zelarik hango administrarritza ahalik egokien antolatuz bideratu zuen. Gero Salamanca eta Coimbrako Unibertsitateetan katedraduna izan zen.

Toledon artzapezpiku zen Frai Bartolome Karrantza Miranda nafarra, gertakari ilunez nahasi zuen Inkisizioak eta Valladolid-en presondegian sartu zutenetik, haren alde nabarmenu zen Azpilkueta eta Pio IV.a Aita Santuarengana jo zuen. Errege Felipe II.ari ez zitzaion ongi iruditu eta gure Azpilkueta “frantsesztat” jo zuen. Izan ere, familiaratik zetorkion Martin Azpilkuetari nafar erregeen alderako jokabidea, baina nafar jatorra zelako, ez frantsesa.

Gero, 1567. urtean, Erromara jo zuen eta, Vatikanoko Tribunal nagusiko kide izendatu zutenetz, aukera egokia lortu ere bai, zeren Pio V.ak, Gregorio XIII.ak eta Sixto V.ak beren kontseilaritzat hartu eta ohore handien jabe egin zuten. Eta, han ere, bertako antolakuntza eta egitarauen hobekuntzaz arduratu zen. Horregatik, bere bizitzako azken urteetan, administraritza eta zuzenbideetan ospe handia lortu zuen, ez ordea Espainiako gortean.

Bere lanik aipatuenak honako hauek ditugu: *Comentario resolutorio de usuras* (Lizarra, 1565), *Manual de confesores y penitentes* (Salamanca, 1556) eta *De Redilibus ecclesiasticis...* (Erroma, 1574).

Manual de confesores y penitentes liburu horretako tesi nagusian zioen: “Erresuma ez da erregerena, baizik komunitatearena, eta erregetzaren ahalmena komunitatearen eskubide naturala denez eta ez erregerena, horregatik ezin du botere hori komunitateak guztiz utzi”.

Bere jaioterri zuen Barasoain herrian ospitalea eraiki zuen, Nafarroaganako maitasuna erakutsiz. Gure egunotan, berriz, Eusko Ikaskuntzak ohore egiten dio Zuzenbideko koaderno sailari Azpilkueta izena ematean.

Euskal Argiarioa

Hamazazpigarren mendean, Argiario edo Ilustrazio garaian sartzen garelarik, badugu giza eskubideen aldeko leku-kotasunik aski. Joanes Etxeberri Ziburukoak 1627. urtean bertsoz idatzi zuen liburuan zioen: “Erregeak behar ditu defendatu jendeak,/ hizkuntza batekoak hain ungi nola bertzeak”. Hor ikusten denez, esan genezake lehenago Martin Azpilkueta “Doktor Nabarro” hark emandako aholkuekin bateratsu datorrela. Dena dela, lekuko horiek erakusten digute halakoak zirela euskaldunon iritziak.

1556. urtean Nafarroako Urdazubin jaioa zen Pedro Dagerre Azpilkueta, guretzat “Axular” bezala hain ezaguna dugun idazle ospetsua. Salamancan ikastaroak egina zen eta bere bizitzan zehar hil arteraino Lapurdiko Saran parroko izana. Bere *Gero* (1643) liburuan agertzen denez, honek ere bazuen zerbait Aita Vitoriaren irakaskuntzetatik. Hara hemen esaldietariko bat: “Iuramentuak ongi, zuzenki eta behar den bidean egina izaiteko, behar ditu hirur gauza, hirur lagun eta sostengu: egia, premia eta zuzena”.

Baina, gure artean, Aita Manuel Larramendi andoaindar josulaguna dugu noski Argiario garaiaresan sustatzailerik handiena. Besteak beste, *Corografía de la provincia de Guipúzcoa* deritzan lana idatzi zuen 1754an, Bartzelonan 1882an argitaratuko zena. Gure hizkuntzaren goraiipamenak ez zituen aski izan eta aitonen semetasunaz ere jabetua zen: “De la nobleza de sangre heredada en Guipúzcoa” deritzan kapitulu gogor aritu zitzaigun Carlos Osorio zenaren aurka, honek barre eta iseka egiten zuelako hemengo guztiok –ne-

kazari, ikazkin, arotz, zapatagin eta abar- aitonon seme (“hidalgo”) izateagatik. Bai Larramendik ongi erantzun ere, hemen gizon guztiok ginela bakoitza bere lanari loturik, baina aldi berean nobleziaz berdinak, klase diferentziarik gabeak, eta hobe zela hola izan, eta ez beste zenbait herrialdetan bezala, noble alferrak, noble lapurrak eta abar.

M. Larramendi gizon argi bezain zorrotzak, Espainiak gure herrian zeraman politikaz kezkatu egin zituen zenbait salakuntza foruen alde. Hortaz irakurgarria da J. Ig. Tellechea Idígoras-ek bere sarreraz, oharrez eta hitzatzaz argitaratu zuen Larramendiren *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* (1983) liburua. Eta argitaratzaileak bere sarrerako XLIV-XLV. orrialdeetan dioena kontutan hartzekoa da.

Bestalde, liburuaren bosgarren hitzaldian (70. orrialdean) Pirinioetako mugaren gainetik, gure nortasuna indartu nahian, elkartasuna proposatzen zigen. Gogoan izan zenbait urtez Baionan bizia zela eta, beharbada, han ulertu zuen mugaren bi alderdietan ginela euskaldunak, gure hizkuntza eta iritzi berdintsuei esker, elkarren artean edozertan laster ados jartzen ginenak.

Irakurgarria, baita ere, liburu horretaz J. Antonio Ayesarán Lekuonak zioena. Irakurri besterik ez dugu 1984an Eusko Ikaskuntzaren *RIEV* aldizkariaren XXIX. zenbakiko 107-113. orrialdeetan idatzi zuena.

Hala ere, esan beharra dut, Gaztelako lehen errege haiek eta gure probintzietako Batzar Nagusiak, hauek aspalditik zituzten foruak errespetatuz, elkarren artean aski ongi konpondu zirela. Baita ere 1812. urtean Cadizko Konstituzioa onartzean partaide izan zirela. Baina, esan beharrekoa da, 1820. urtetik, hiru urtez, liberalak nagusituz eta Frantziako

politikaren arauak jarritz, Batzar Nagusiak kentzetik hasi zirela elkarren arteko iskanbilak. Beraz, ez ziren batere harri-garriak Larramendiren kezkek.

Herri baten abertzaletasuna ez da berez pizten bere burujabetzaren alde, inperialista erako beste aberri batek horretara bultzatuz behartzen ez badu.

Azkoitiko zaldun haiek ere, Xabier Munibe, Joakin Egia eta Manuel Altuna, nobleziatzko tituludunak izan arren, gaztelarrentzat, isekaz, “zalduntxoak” ziren; baina bataio hori ez zuten txarrera hartzen eta Real Seminario hura Bergaran sortu zuten, Humanitate eta Letrak irakasteaz gainera zientzia erabilgarriak bultzaraziz, Matematika, Fisika, Kimika, Mineralogia, Metalurgia eta abar.

Ingalaterrako erregetzaren inguruan kargu garrantzitsuak eduki zituen Alexander Jardine zeritzanak Bergaran Xabier Munibe, Peñafloidako kondea, bisitatu zuenean, harriturik zegoen Bergarako Seminario hartan ematen zituzten irakaskintza gaiekin, baina harrituago Azkoitiko zaldunok herriarekin maila berdinean bat eginak ikusteaz. Gorai-patzen du beren lana, baina aldi berean baita argi salatu ere horien aurka inkisidore eta gainerako beste askok bekaizkeriaz sortzen zizkieten eragozpen nagusiak.

Lord Carnarvonek 1827an Penintsulara egin zuen bi-daiatz idatzi zituen oroitzapenetan, euskaldunon foruak zehazki aipatzen ditu, Ingalaterrako *Habeas corpus* baino lehenagokoak izateaz gainera hobeak ere bazirela giza eskubideen aldetik begiraturik. Hori zen euskaldunon artean Argiario garaiko giroa.

Baita ere, gogoangarri zaigu Migel Lardizabal Uribe, Mexikon jaioa guraso euskaldunengandik, eta ohorerik aski izan zuen hark Bergarako Erret Seminario hartan zuzendaria izateaz. Eta giza eskubideen alderako sentipenak erarik egokienean erakutsi zituen 1784. urtean argitaratu zuen liburu batean, non salatzen zuen Nafarroako Agote, Mallorcako Chueta eta Asturiasko Vaqueiros de alzada taldeetakoek ingurukoengandik sufritzen zuten baztertze edo marginazioa.

Baina hemen ahantzi ezinezkoa zaigu Axular handia hainbeste goraiatzeko zuen Joannes Etxeberri (1668-1749) Sarako mediku hura. Julio Urkixok bildu zituen bere lanak, sarrera eta oharrez osaturik argitaratzeko (ikus *Obras vascongadas del Doctor Labortano Joannes D'Etcheberri, 1712*. Paris, 1907), norengan aurki genitzakeen giza eskubideen alderako iritziak. Esate baterako, Lapurdiko Biltzarrari idatzi zion gomendiozko gutun hartan zioen: “Mundu hau bada bere oinean badago, mantentzen bada, legeak egiten bada, nori bere zuzena begiratzen bazaio, jakintasuna, eta eskolak irakasten, eta ikasten bada, eta guztien gainetik baldin salbatzen bagara; ontasun eta fagore hau guztiak heldu zaizkigu mintzotik eta hitz egitetik”.

Mediku berak “Eskual Herriko gazteriari” eskaintzen zion idazlanean gaineratu zuen beste honako hau: “Jakintasuna eta enorantzia baliatzen dira bi harma diferentez. Bat dakaribila nekea eta trailla; bertzeak aisia eta alferkeria; jakintasan edo zientziak gerla egiten dio enorantziari nekearen eta trailluaren bidez, harma hautaz garaitzen du. Halaber enorantziak ere aisiaren eta alferkeriaren bidez kontra egiten dio jakintasanari, trabatzen du, eta irabazten dio-

tza hanitz izpiritu gai eder, eta batzuetan, munduan diren adimendurik haltoenak, eta gairik hoberenak; batzuek estudiantu gabez, eta bertzeak estudiantu ondoan halaber aisiari eta alferkeriari bere buruak emanetz, eta ikasi zutena ahanztera utziz”.

Iparragirre euskal kantariak bere heldutasunean eskainitakoak ere ahantzi ezinezkoak zaizkigu:

*Zuaz, Don Carlos zazpigarrena
Urrun bai gure lurretik;
Ez dezu utzi guretzat pena
Eta tristura besterik:
Lutoz negarrez ama gaixoak
Ai! ezin konsolaturik;
Ez degu nai ez geiago ikusi
Zorigaiztoko gerrarik.*

Eta ondotiko hauek, gure garai honetan benetan go-goangarriak, noski, baldin elkartasunean jarraituko badugu:

*Egia, emen ere
joan dan aspaldian
gauza onik ez degu
Euskal-errian;
oraindaino bezala
bagabiltza auzian,
emen biziko gera
beti miserian.*

Izan ere, lehenik bertakoon elkartasuna dugu beharrezkoena eta gero besteekiko adiskidetasuna. Gizakia, edonon-

go gizakia baita errespetagarri eta hortik abia gintezke beste ororen elkartasunera. Iparragirrek igarri zion gure zoria nondik nora zihoan. Nire ustez, beharbada Larramendiren iritzien berri zerbait bazekien. Horregatik, hark bezala, bere azkenetariko bertso batean hara zer zioen:

*Gerturatzen da eguna
nazioen liga edo alianza
da, ikusiko deguna.*

XX. mendean

Foruen galeraren ondotik, hogeigarren mende hasierako egoerak eskatzen zuenaren arabera, garaiko iritziei buruzko galdera egin zuen Gipuzkoako Diputazioak Eibarko sozialisten Casa del Pueblora, eta honek beraien artean intelektual mailan burutza zeraman Toribio Etxebarriari eskatu zion gai horretaz zerbait presta zezala. Bi hitzaldi eman zituen 1918. urtean, *La liga de naciones y el problema vasco* izenburupean eta Eibarren bertan V. Fernández tipografian inprimatuak izan ziren. Han agertu zuen herri bakoitza bere etorkizunaren jabe izan beharra. Aldi berean federakuntzaren premia, foruen galerak utzitako lekua betearazteko. Gainera, harrigarria badirudi ere, Tomas Meabek zioen bezala, *Gernikako Arbola* kanta, himno gisa hartzekoa zeritzon. Foruek historiaz administrarritza aldetik Euskal Herriari ematen zioten burujabetza juridikoki nolabait bete beharrekoa zela. Denboraz, berez gizarte giroa aldakorradenez gero, ez zeritzola zuzena atzera begira jartzeari, bai-

na bai nolabaiteko ordaina eskaintzeari. Hortik jo zuen ebazpidetzat guztion artean osa genezakeen autonomia zabal bat proposatzera.

T. Etxebarriak adiskide mina zuen Indalecio Prieto eta bere iritziak zer ikusirik izan zuen honek Errepublikaren garaian Euskal Herriarentzat autonomia defendatu eta bultzatze hartan.

Gero, 1936. urtean militarrek altxatu eta Franco buru jarri zenetik, gizaki soil bakoitzaren eskubideak kontuan hartu gabe, berrogei urteko diktadurak iraun zuen, katolikotasunaren izenean kristautasunaren printzipioei jaramonik egin gabe. Ikus bestela Unión Internacional de Malinas erakundeko C. Martí Martí eta R. Torrella Cascante apaizek argitaratutako *Código de moral política* (Barcelona, 1958).

Baina, gure garai honetan, gogoratu beharrekoa dugu zuzenbideaz hain zentzuz eta hainbeste idatzi zuen Jesus Galindez amurriarra, 1942an Buenos Airesen *La aportación vasca al Derecho internacional* zeritzan liburua argitara eman zuena. Liburu irakurgarri hartan bereziki Frantzisko Vitoria eta Simon Bolibar zituen eredu, eta horietan oinarritu zen bere tesia garatzeko. Baina, bera abertzalea izanik ere, X. kapituluan zioen: “Ez inperialismorik, ez nazionalismo itxirik. Libertatea eta elkartasuna”.

J. Galindezek, bere burua Ameriketako Dominikar Errepublikan erbesteraturik ikusi zuenean ere, giza eskubideez arduratzen jarraitu zuen eta “La era de Trujillo” diktadurari buruzko tesia prestatu zuenean hil zuten. Gure garaikoon-tzat galera handia izan zen hura.

Aipatu dudan Galindezen liburu hori argitaratu zenetik sei urtera, 1948an, agertu zuen Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertetsala.

Adierazpen horren bultzatzaile eta idazkuntzan aurrenengo ibili zena, Baionan 1887ko urriaren 5ean jaiozako René Cassin izan zen. Aita Proventzakoa zuen eta ama Lapurdikoa. Zuzenbidea eta Letrak Aix-en-Provence hirian egin ondoren Parisera aldatu zen, 1914an doktoretza egiteko. Sorbonan ez ezik beste toki batzuetan ere eskolak eman zituen. Frantziako IV. Errepublikan kontseilari izan zen, De Gaulle jeneralaren kontseilari juridikoa ere bai eta, mentalitatez hain zabala zenez, seguruenik, beregandiko ideia izan zen De Gaullek euskaldunoi euskarazko eskolak eskaintzea ere; baina, zoritxarrez, eskaintakoa betetzera ez zen iritsi. Cassin jauna, bere merezimenduz, *Doctor honoris causa* izendatu zuten Oxford (1945) eta Magunzian (1963), eta Bake Nobel Saria jaso zuen 1968an.

ONUko Adierazpen agiri haren lehen euskarazko itzulpena Nikolas Ormaetxea “Orixe” idazle bikainari zor diogu, zeinak argitara eman baitzuen 1949an *Alderdi* aldizkarian, izenburutzat *Giza-eskubide guztien Aitorkizuna* jarritz. Gero, Coruñako Agrupación Cultural O Facho zeritzan elkar-teak, ONUren agiri horren hogeigarren urteburuan (1968) lau hizkuntzatan (galegoz, gaztelera, katalanera eta euskaraz) argitara eman zuen Coruñako Moret argitaletxean, J. A. Gonzalez Casanova irakaslearen hitzaurrez. Euskarazkoa “Orixe”ren testu bera zen. Francoren Gobernuak bahitu zuen, hitzaurrearen aitzakiaz. Baina hitzaurre hark ez zekarren ezer giza eskubideen testuan ez zegoenik.

1984an Amnesty International erakundeak atera zuen beste bat aipaturiko lau hizkuntzetan, Joaquín Ruiz-Giménez hitzaurrearekin. Euskarazkoa neronek prestatu nuen Orixerenaz baliatuz, baina era herrikoiagoan jarritz.

Azkenik, aditzera eman beharra dut, giza eskubideen alde oso erabilgarria den liburu bat badela, 1981ean Unescok argitaratua eta gerostik hamasei hizkuntzatara itzulia; euskaraz ere 1999an Bilboko Unesco Etxeak emana digu Leah Levin andere idazle ingelesak prestatuturiko *Giza eskubideak: galde-erantzunak* deritzana. Edonorentzat gomendagarria benetan.

APORTACIÓN VASCA A LOS DERECHOS HUMANOS

En mi juventud, durante la práctica del deporte de montaña, en uno de mis viajes de excursión a los Alpes, aproveché para pasarme por Ginebra y visitar el Palacio de las Naciones. Allí tuve la oportunidad de contemplar en su sala principal la obra mural del pintor catalán José María Sert, representando a Francisco de Vitoria, como le habían encomendado el Gobierno de la República y la Sociedad de Naciones para la decoración de dicho palacio.

Salvador de Madariaga, que a la sazón dirigía la política exterior, de común acuerdo con J. Avenol, secretario general de la Sociedad de Naciones, fueron quienes propusieron que el tema central se dedicara al Padre Francisco de Vitoria, como creador de las bases fundamentales que establecieron el Derecho Internacional moderno. La idea fue aprobada por el Gobierno de la República en setiembre de 1934 y, un año más tarde, las Cortes españolas acordaron conceder un crédito extraordinario de 500.000 pesetas para los gastos de la decoración.

Las pinturas murales fueron realizadas entre los años 1935 y 1936. La gran sala de los consejeros está inspirada

en la paz y concordia, intitulada “La lección de Salamanca”, en alusión a Francisco de Vitoria. Triste es recordar que durante aquellas fechas en que Sert se dedicó a la decoración del techo, el cielo español se cubría tenebrosamente con la más cruel de las guerras civiles. Paradoja que espero no ha de repetirse. Y sírvanos de lección esa circunstancia en la que se pintó el techo del salón principal del Palacio de las Naciones, ejecutado por Sert con estilo miguelangalesco, plasmando en lo más alto el símbolo de la fraternidad universal, que el autor de la obra describió de esta manera: “El techo representa al maestro Francisco de Vitoria mostrando la vía a los juristas que elaboraron las reglas del Derecho Internacional”.

Desde aquel momento tomé interés para conocer la obra del P. Vitoria, e inmediatamente, a mi regreso, localicé y leí *Relecciones sobre los indios y el Derecho de guerra*.

Francisco de Vitoria

Hasta tal punto me sorprendió aquella visita al Palacio de las Naciones de Ginebra que, posteriormente, una vez leída la obra citada, publicada por Espasa-Calpe en 1946, tomé interés en conocer mejor la vida y obra del maestro Francisco de Vitoria.

En primer lugar, ayer como hoy, tiempo es de recordar y meditar algunas de las sentencias del maestro Vitoria en sus proposiciones, porque “... en virtud de ninguna autoridad es lícito dar muerte a un inocente”. Aprendamos de su humildad y repitamos esas palabras para que reine la concordia entre los humanos.

No se sabe con exactitud la fecha ni el lugar de nacimiento del P. Francisco de Vitoria, que debió de nacer en 1483. En vida, en su estado civil, se le conoció como Francisco de Arcaya y a veces aparece como Francisco de Gamboa. Téngase en cuenta que la familia Arcaya de Vitoria pertenecía al linaje vinculado a los parientes mayores de Gamboa. Francisco tuvo otro hermano más joven, llamado Diego y nacido en Burgos. El padre de los mismos mantenía su vida comercial entre ambas ciudades. Pero durante aquella época feudal contaba más el linaje familiar y el entronque que la oriundez. Por eso, cuando Francisco y Diego, juntos entraron en la Orden de los PP. Dominicos, adoptaron el sobrenombre religioso de Vitoria.

Sobre Francisco de Vitoria vino a decir acertadamente el ilustre polígrafo Menéndez Pelayo: “De Vitoria data la verdadera restauración de los estudios teológicos en España, y la importancia soberana de la teología, convertida por él en ciencia universal, que abarca desde los atributos divinos hasta las últimas ramificaciones del derecho público y privado...”

Realizó sus estudios en París, durante más de catorce años, desde 1508 hasta 1522, primero en el Colegio de la Orden dominicana, es decir, en el Colegio de Santiago, y después en la Universidad de la Sorbona, dedicado al estudio y también a la enseñanza. A su regreso estableció su cátedra, primero en Valladolid y luego en Salamanca, impartiendo clases de Humanidades.

Su personalidad se distinguió ya en París, haciéndose respetable su autoridad como teólogo, con influencia en altas esferas del poder eclesiástico, tal como se manifiesta *a posteriori* en una misiva que en 1527 Erasmo de Rotterdam

dirigió a Luis Vives, pidiéndole que intercediera ante Francisco para que éste a su vez lo hiciera ante su hermano Diego, porque le perseguía la Inquisición y éste era uno de los que le tachaban de hereje.

El Padre Vitoria, desde su cátedra, realizó una fecunda labor docente, como lo demuestra la serie de sus principales *Relectiones*. Unas conferencias extraordinarias, a las que acudían además de alumnos otros profesores estudiosos, entre ellos el navarro Martín de Azpilcueta. Aquellas conferencias eran como resúmenes de las lecciones de cada curso, que asombraban por su erudición y su carácter especializado, así como enciclopédico, a la vez que demuestran la preocupación del maestro por la actualidad palpitante de la época: *De silentii obligatione* (1527), *De potestate civilii* (1528), *De Homicidio* (1530). *De matrimonio* (1531), *De potestate Ecclesiae prior* (1532), *De potestate Ecclesiae posterior* (1533), *De potestate Papae et concilii* (1534), *De augmento charitatis* (1535), *De eo ad quod tenetur* (1535), *De simonia* (1536), *De temperantia* (1537-38), *De indis* (1539), *De iure belli* (1539), *De magia* (1540) y *De magia posterior* (1543).

De entre todas destacan, por su transcendental importancia en aquella época, las lecciones *De indis* y *De iure belli*, con las que estableció las bases de lo que hoy entendemos como moderno Derecho Internacional, aun reconociendo que sus textos fueron sistematizados por el holandés Hugo Grocio para uso universal.

Falleció en 1546, y la publicación de su obra, salvo algún manuscrito propio, se la debemos a los apuntes tomados por sus alumnos, que tanto le admiraron durante las memorables clases de Salamanca. De ahí que con frecuencia

se le haya comparado con Sócrates. La obra reunida se la dieron al impresor Jacques Boyer de Lyon (Francia), quien la publicó en dos tomos de octava mayor el año 1557.

El pensamiento reflexivo para dicha obra fue impulsado principalmente por el misionero y humanista Fray Bartolomé de Las Casas, que denunció los hechos de los colonizadores de América de forma que inquietaron a Carlos V y su corte. Y fue el rey quien encomendó al reconocido teólogo y jurista maestro Vitoria que estudiara los casos denunciados. De ahí surgieron *De indis* y *De iure belli*, con las que Vitoria no defraudó las esperanzas depositadas en él y obtuvo un alto grado de reconocimiento.

La primera parte de *De indis* constituye la disertación pronunciada con ocasión de la apertura de curso en 1532. Con ella impactó la conciencia pública al condenar sin paliativos el aspecto inhumano y belicoso de la conquista de América, y en *De iure belli*, donde desde el comienzo sentencia que “en virtud de ninguna autoridad es lícito dar muerte a un inocente”, argumenta y defiende la guerra justa, que únicamente se puede producir cuando el tirano no respeta el derecho de las gentes, derecho natural o derivado del derecho natural.

Él nos confirmó que “lo principal del hombre es la razón, y, por otra parte, inútil es la potencia que no se produce en un acto”.

En sus referencias documentales se cita frecuentemente la obra *Instituta*, sin mención al autor, pero que no puede ser otro que el jurista romano Gayo. De entre los fragmentos de Gayo, Francisco de Vitoria supo recoger la idea del “Ius Gentium”, Derecho de las Gentes (*quod vero naturalis*

ratio inter omnes homines constituit, id aput omnes populus peraeque custoditur vocaturque ius gentium), que constituye la principal base doctrinal de Vitoria, y vino a probar en primer lugar el derecho de las gentes, derecho natural o derivado del derecho natural, para sentar las bases del Derecho Internacional moderno. Inspirado en él básicamente, llegaría a afirmar: “La mayoría de los hombres estableció que los cautivos de guerra fueran sólo esclavos y que convenía que los huéspedes no fueran expulsados: todo esto tiene fuerza de ley, aunque hubiera alguno que lo repugnare”. En otro punto precisa taxativamente: “En todas las naciones se tiene por inhumano el recibir y tratar mal a los huéspedes y peregrinos sin motivo especial alguno, y, por contrario, se tiene por humano y cortés el portarse bien con ellos, a no ser que los extranjeros aparejaren daños a la nación”.

Nadie pone en duda que sus declaraciones sobre los derechos humanos son loables: “Para que la ley obligue, conviene que sea justa, honesta, tolerada, igual y útil a la república, y que, *coeteris paribus*, no grave a uno más que a otro” (*Ad hoc quod lex obliget, oportet quod sit justa, honesta, tolerabilis, aequa et utilis respublicae, quod non gravet unum magis quam alium, coeteris paribus*).

Francisco de Vitoria, más que un hombre de acción, fue un hombre de pensamiento reflexivo. Sus lecciones, en dichas clases de humanidades en Salamanca, tienen aún vigencia indiscutible entre nosotros, así como cuando hace suya la idea tomada de aquella frase de Terencio, para manifestar que “al varón prudente le conviene experimentar todas las cosas antes con las palabras que con las armas”.

El maestro Vitoria hace referencia permanente a la defensa de los derechos humanos, de manera clara, precisa y contundente. Es ese precisamente su carácter activo, de compromiso militante incluso, de ese humanismo renacentista que él profesaba. Ese saber enlazar la cultura con la reivindicación de la dignidad de la persona. Ese no sucumbir a la tentación, tan frecuente aún en nuestros días, de confundir el saber con la simple erudición estéril y descarnada.

Y para los que tratan de no comprender esta lección tan elemental, de forma irónica exclamaría: “Andense ahí jurando que nosotros no tenemos ninguna culpa”.

De acuerdo con las líneas marcadas por Vitoria, en el ámbito institucional de Ararteko, procuré solidarizarme con los homólogos de Europa, y así celebramos en 1993 las terceras Conferencias del Instituto Europeo del Ombudsman y rendimos entre todos un merecido homenaje a Francisco de Vitoria, junto al monumento erigido en Vitoria-Gasteiz, obra del escultor Moisés de Huerta.

Martín de Azpilcueta, “Doctor Navarro”

Martín de Azpilcueta (1492-1586), conocido popularmente como el “Doctor Navarro”, era uno de los que con asiduidad acudía en Salamanca a las conferencias del maestro Vitoria y, por tanto, recibió la influencia de carácter humanístico de Francisco de Vitoria.

El doctor Navarro destacó como jurisconsulto y teólogo, con reconocimiento en toda Europa por su importante

labor en la docencia, tanto en las letras como, sobre todo, en el Derecho canónico.

Siendo aún mozo, sufrió el exilio francés tras huir con su familia, al sobrevenir la conquista de Navarra por el Duque de Alba al servicio del rey Fernando el Católico, ya que su familia fue fiel al rey legítimo de Navarra. Para comprender los hechos considero necesaria la lectura de la obra *Historia de la conquista del Reino de Navarra por el Duque de Alba, general del ejército del rey Fernando el Católico, en el año 1512*, según su cronista Luis Correa, que fue reeditada con notas, prólogo y breve compendio de la historia de dicho reino por J. Yanguas y Miranda (Pamplona, 1843). Por dichas circunstancias, Martín estudió jurisprudencia en Toulouse (Francia).

Martín de Azpilcueta fue primero profesor de derecho canónico en la Universidad de Cahors y luego en el mismo Toulouse. Fue nombrado consejero del Parlamento de París, cargo que no aceptó. Al volver a su tierra, en 1523, se ordenó sacerdote en la recién reformada Universidad de Salamanca, donde tuvo contactos con Francisco de Vitoria. Por consiguiente, no es un hecho casual que en la obra *Miscelánea de noticias romanas acerca de don Martín de Azpilcueta, Doctor Navarro*, escrita por María Luisa Larramendi de Olarra y José Olarra, al inventariar los bienes relictos a la muerte de don Martín, figure entre los ejemplares de su biblioteca “Relectiones undecim Francisci Victoriae”, según se recoge en la página 198 de la citada obra.

En la Universidad de Salamanca enseñó durante catorce años. El año de 1538, el rey de Portugal solicitó a su yerno, Felipe II, la presencia de Azpilcueta en la Universidad de

Coimbra. Allí pasó a desempeñar la cátedra prima de cánones durante dieciséis años, hasta su jubilación.

Se ocupó de la defensa de su conciudadano Fray Bartolomé de Carranza Miranda, arzobispo de Toledo, preso en Valladolid por la Inquisición bajo la acusación de herejía y condenado a arresto domiciliario, mezclado en intereses turbios por el rey Felipe II. Este a su vez se encendía por razones oscuras en ira real contra Martín de Azpilcueta por haber visitado al legado pontificio de Pío IV, sin ser llamado, considerando que violaba el secreto real y acusándolo de ser “francés”. El Doctor Navarro se defendió de tales acusaciones en su *Memorial*. Para hacernos cargo, es muy conveniente conocer los estudios realizados por José Ignacio Tellechea Idígoras: *Bartolomé Carranza, Arzobispo...* (San Sebastián, 1958) más *Fray Bartolomé Carranza. Documentos históricos. III. Testificaciones de abonos, indirectas y tachas* (Madrid, 1966).

Años después, en octubre de 1567, Martín de Azpilcueta obtiene autorización para marchar a Roma donde ha de ventilar el proceso de Carranza, y a continuación es nombrado miembro del Tribunal Supremo de la penitenciaría y consultor de los Papas Pío V, Gregorio XIII y Sixto V, quienes le colmaron de honores.

Erromatar Inperioa erortzean anitz herri agertu ziren kulturaz noraezean. Ilunaldi luze batean murgildu ziren Europaren mendebaldeko herriak Erdi Arora arte. Hala ere, etenaren ondotiko lehen mendeetan berezko indar edo inertziatzko jarraipena ezagutu zuten, poliki-poliki itzaltzen joango zena. Hemen, uste dugu mende askotan zehar adi-tuen artean euskara-latin elebitasunak iraungo zuela. Inperio hark hizkuntzarik gehienak suntsitu zituen. Gureak ere bide hori eraman zezakeen, baina hara hor suspertu eta indarberrituz gure herriak nola berreskuratu zuen.

Latinak eman zigun ahozko hizkuntza idatziz jartzeko aukera. III. mende bukaera ingurutik VI.era arte, erromatarren erako ohitura jarraitu zuten oroitarrietako idazkiak latinez jarriz, eta euskaldunen izen eta jainkoak hor agertu ziren lehen aldiz, latinaren grafiaz idatziak; bereziki Akitania-ko eskualdeetan, erromatarrentzat Novenpopulania zeritzan Gaskonian (Vasconiatik datorrena noski, Europako zenbait tokitan ohi bezala, lehen letra hori W erabiltzetik G-ra igaro baitzen). Idazkion eragina Kataluniako Ipar-mendebaldera, Aragoira eta Nafarroaraino iristen zen. Beste zenbaiten artean, hor aurki genitzake euskal izenak. Eta Nafarroako Lerga hirian, III. mendekotzat jotzen den oroitarri edo lapida hura, non irakur daitekeen: *Ume sahar*.

Gure artean, idazki horien berri zehatzak, laburki bederen, eman zizkigun Koldo Mitxelena zenak *Textos arcaicos vascos* (1964) liburuarren 14-20. orrialdeetan. Ondotik, Salamancan bere ikasle izan zuen Joakin Gorrotxategik zabalago landu zuen gai hori, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania* (1984) deritzan liburuan.

Euskaldun familian jaio eta bizitzan zehar aurrez aurre hainbeste ikusi beharra izan dudalarik, sortu zitzaidan barne kezka eta irakurketak bideratu zidan jokaera. Agian, *Euzko-gogoia* aldizkarian irakurtzen nuen Andima Ibiñagabeitia izan nuen euskaltzaletasunaren eredugarri eta bultzatzaile, zeinak gomendatzen baitzigun euskal idazleoi norberaren euskalkian eta euskara batuan lanak burutzeko. Neurri batean horregatik aritu izan naiz, nire hizkuntzatik eta nire heritik mundu zabalera begira beste inori ukorik egin gabe. Eta Andima Ibiñagabeitiaz ikus Pako Sudupek eta biok 1999. urtean *Jakin* aldizkariaren 112. zenbakiaren 83-100. orrialdeetan idatzi genuena.

Euskarazko literatura ezagutzeko biderik aukerakoena Yon Etxaide adiskide nuenari zor dizkiot. Hortik ohartu nintzen mugaz handiko literaturaren aberastasunaz. Eta gidaritza horri esker, hizkuntzak berez ematen digun loturagatik, Euskal Herrian zehar egiten nituen ibilerek erakutsi zidaten Iparraldean ere ez nintzela arrotz, anaia baizik. Esker onez eskaini nion ongi merezia zuen artikulua, “Yon Etxaide, idazle bikain eta adiskide minaren oroitzapenez” zeritzana, *Jakin* aldizkariaren 110. alean, 49-58. orrialdeetan.

Azken urte hauetan *Diario de Navarra*-k eztabaidarik aski sortu du *Lingua Navarrorum* dela eta. Batzuentzat Nafarroako erromantzea zela eta beste batzuentzat euskara. Nafarren historiaz hainbeste zekien Arturo Campión-ek ez zuen horrelako zalantzarik, baina ezer ez dakiten askok bai ordea. Horregatik baztertzen dute euskara, bai eskubitarrek eta bai ezkertiarrek. Nork pentsa zezakeen bertako Legebiltzarrean nafar sozialistek ere aurka jarritz ukatu behar zutenik? Erdi Aroan nafarrek Orreagan Erroldan menperatu zu-

ten eta hogeigarren mende bukaeran beste Erroldan batek bere gerra zikinez eta lapurketaz mendekua hartu zuen nonbait, eta oraindik ere hor datozkigu ausarti bere jarraitzaileak. Alajaina! Hainbeste hizkuntza mintzo den Europan, zer nolako Europa Batua osatu dezakegu horiekin?

On zaigu agiriak lekuko jartzea. Hara hemen Iruñeko apezpiku zen Petrus II.ak 1167. urtean Beila kondearekin Aralarko San Migel santutegiaz egindako hitzarmeneko agiriak zer zioen:

“Erit autem talis differentia inter Orti Lehoarriç et Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoarriç faciet ut lingua Nauarrorum dicitur unamaiçter et Aceari Umea faciet buruçagui, quem voluerit.” (Ikus José Goñi Gaztambide, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, 1997, t. I, 305 dok., 269. or.).

Euskara ez ezik latina ere irakatsi beharra ote dugu? Zeren, 1998an Euskal Erkidegoko Legebiltzarrerako hauteskundeetan politikarien aldetik astakeriarik aski entzun izan dugu. “Pluralismoa” aldarrikatzen dutenen alderdikoa den Bizkaiko emakume batek esan zuenez, euskara ikastea zaila omen da eta gainera ez omen da hizkuntza erabilgarria (“el euskera, es difícil de aprender y de muy poca utilidad práctica”, bere hitzetan). Ez da konturatzen edo ezin da konturatu, euskaldunok Frantzia eta Espainiaren arteko muga igarotzeaz bat, anaikiro agertzen garela euskarari esker. Ni behintzat, ez naiz arrotz ez Donibane Garazin eta ez Maulen. Beraz, zalantzarik gabe, elebakardun horiek baino europarrago gaude. Gainera, beraiek gaztelera hutsean bezala, euskaldunok euskara soilean jardungo bagina, Legebiltzarran ez luke izango modurik ezer ulertzeko.

Abertzaleek euskara politizatu dutela? Nork behartu zuen Espainiako eskola guztietan gaztelera soilik irakastea, Karlos III.ak bere *Real Cédula de 23 de junio de 1768* haren aginduz baizik? Agiri hori ez ote hizkuntzaren politizatzaile? Gaztelera behar ote dugu guztion jaun eta jabe? Mintzatzaile gehiago dituelako? Iritzi horren arabera eta aurrera begira, zientzia eta tekniken etorkizuneko den ingelesa zergatik ez? Baina hemen, gaur egun, gezurra badirudi ere, elebakardunen itsutasunak agertzen duenez, “pluralistak” omen.

Historiaren agiriek erakusten digutenez, Austriar dinastiako erregeen jokaera bestelakoa izan zen. Euskararentzat abegi hobea zuten, zeren Isastik *Compendio historial* haren 168. orrialdean zioenez, Karlos V.ak gogozko omen zuen euskara, eta nafar mandazainarekin izan zuen elkarrizketa jaso zuen (Mitxelenak, aipaturiko *Textos arcaicos*-en 154. or. dakarrena, eta horrez gainera beste zerbait gehiago 106-107. orr.). Felipe IV.ak, bere aldetik, Juan de Isasi eibartarra hautatu zuen bere semeen “ayo” (irakasle gisa), eta Elgoibarren 1635eko apirilean egin ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietan irakurri zen bere gutun bat, non zioen Baltasar Printzeari gogozko zitzaiola euskara: “gusta su alteza a ratos que se le hable en bascuence y cuenta en nuestra lengua algunos números muy naturalmente”. Ondoko Borbondarren dinastiakoek harrera horri ez zioten jarraitu. Beraz, hortik atera kontuak hizkuntza nork politizatu zuen.

Lehenago, Errege Katolikoek garaiko Gurutzadetan judu eta arabiarren aurka aldarrikatzen zuten “Hable en Cristiano” esaldia, nork pentsa zezakeen arameera ez dakitenek euskaldunoi ere erantsiko zigutela? Francoren diktadura madarikatu haren denboran hamaika aldiz entzun beharra izan genuen.

Baina euskaraz, ahoz aho noiztik datorkigun inork ez dakien herri literatura dugu, kondaira eta kantuz. Erdi Aroan sustraitzen diren pastoral antzerki motak ere bai, atsotitz edo errefrauak eta oraindik gaur egun hain ezagunak zaizkigun kantak. Eta XVI. mendetik argitaratu izan diren literatura liburuak ere kontuan hartzekoak dira.

J. Caro Barojaren *Algunos mitos españoles y otros ensayos* (1944) liburuko gehienak Euskal Herriari buruzko saioak dira, non aurki genitzakeen Europako zenbaiten kidetasuna, bereziki Iparraldekoena. Bestalde, gogoan hartzekoak ditugu R.M. Azkue eta J.M. Barandiaranen bilketa lanak. Gai honetaz, neronek Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* (1961) liburuari egin nion hitzaurrean herri-ipuinei buruz esan nuena berretsi nezake: herri-ipuina dira literaturaren aurrenengo kimuak, noski, haiexek izan direlako kulturadun hizkuntzen literatura oinarri. Sarri, ipuinak aski dira herri baten psikologiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasunetik neurtu daiteke herri-gogoia. Harrigarria da benetan, gure herriak ahozko literatura horren aberatsa izanik, idatzizkoan hain txiroa izan beharra. Era guztietako ipuinen jabe gara, eta bertan ditugu lehenagoko sinesmen, kondaira eta ohituren argitasunak... Norberaren herria ezagutu ahal izateko, zer hoberik ahoz aho etorri zaigun jatorrizko literatura baino?

Baina, batez ere, guztiek jakin bezate: euskarak Europako Batasunean ez diola inori argirik kentzen; alderantziz, euskara galduko balitz, bai ordea Europak bere jatorriak ilundu.

Horretarako gure hizkuntzaren iraupen beharrean gaudete eta, ONUren adierazpenak ongi agertzen zuen bezala,

hizkuntzak biziko badira mundu moderno honetan, gaur egun erabiltzen diren aurrerapen guztiak beharrezko dituzte. Hori zen Antonio Tovar hizkuntzalariaren iritzia ere, *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* liburuan zioenez: “Mundu moderno batean bitarteko modernoak beharrezko dira (eskola, goi mailako heziketak, irratia, telebista eta abar) horiek gorde dezatekelako hizkuntzaren iraupena”.

Azken urteotan euskarak izan duen zapalkuntzaz irakurri beharrekoa da Joan Mari Torrealdairen *El libro negro del euskera* (1998), Ttartalo argitaletxeak plazaratua, inork ez dezan pentsa euskararen debekuak gure asmakizun hutsak direnik, irakurleak hor aurkituko baititu anitz agiri.

Hala ere, harrigarria iruditu zait, 2000. urteko martxoaren 10ean jakin dugunez, Madrilgo Epaitegi Gorenak Udallerri Euskaldunen Mankomunitateari (UEMA) hizkuntzaren bizi iraupenerako zituen asmoak bazterrerazi nahi dizkiola, legez kanpo daudela esanez. Formaren aldetik zerbait zuzen ez badago, hori ez da aski debekua jartzeko; bere egitekoa kontseilu ematea behar luke, nola bideratu behar den esanaz. Baina, horretara, nora goaz Espainiako lehen hizkuntzak naturaz bere baitarik dituen ahalmenak baztertzen badira? Nora ONU eta Unescoren giza eskubide arauak guri Madrildik ukatzen badizkigute? Hori ez da bakebiderako aukerarik egokiena, ez horixe!

LINGUA NAVARRORUM-EN ZORITXARRA EDO GIZA ESKUBIDERIK EZA

Historiara, antzina, Plinio, Tito Livio eta bestek ziotenez, *Vasconum* bezala agertu ginen; aspaldi hartan Akitaniaren hegoaldean hilarriak eta oroitarrak latinez irartzean azaltzen dira euskarazko zenbait izen. Adibidez, I, II, III eta IV. mendeetan: *andere*, *neskato*, *cison* (gizon), *sembe* (seme), *sehi* (sein) eta abar, Mitxelenak ongi sailkatu zituen bezala. Baina, horiez gainera, Nafarroako Lerga hirian latinez irarritako harrian argi agertzen da *Ume sabar*, gure hizkuntzaren lekuko. Pirinio mendien bi hegaletan Kataluniaraino agertzen dira euskarazko toki-izenak. Eta Erdi Aroan, lehenik guztiok Nafar erresumaren eskutik joan ginen, latinez ziotenaren arabera *Lingua Navarrorum* mintzatuz, 1200. urtean Gaztelako Alfonso VIII.a sartu arte. Geroztik, Yon Etxaide zenak ongi zioen bezala, ez dugu bakerik ezagutu.

Euskararen ostarteak (1998) izenburuz agertu nuen liburuan agiririk aski ematen nuen nafar euskarari buruz, eta legezko zait haietako batzuk gogoratzea, oraingo liburu honetatik euskaldunek jakin ditzaten.

Egia da Nafarroako erresuman, *Lingua Navarrorum* aipatua gorabehera, bertako administrazioko erabileran, hiz-

kuntza ofizial gisa, latina, okzitanoa eta nafar erromantzea izan zirela nagusi. Florencio Idoatek, bi funtzionariok 1415. urtean elkarri euskaraz egiten zioten gutunetarikoa bat azaltzean erakusten zuenez, gogozkoa eta ziurrenik ulerterrazagoa zitzaielako. Ikus, “Una carta del siglo XV en vascuence”, *Fontes Linguae Vasconum studia et documenta*, 2. zenbakia (1969), 287-290. orrialdeak.

Egile berak agertzen digunez, XV. mendearen azken aldera agertzen omen da notario-protokoloren bat edo beste, epaiketako lekukoek hitzak euskaraz idatzirik; aldiz, herri askotan batzarrak euskaraz zein nafar erromantzez egiten omen ziren, baina agiriak idatziz jasotzea bigarren horretan egiten zuten. Hala dakar *El esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI* (1981) liburuaren 218-228. orrialdeetan.

Ez dezagun ahantz XVI. mendean Nafarroa gehiena euskalduna zela Erribera inguruko mugetaraino. Horrela erakusten digu Iruñeko Apezpikutegiaren 1587. urteko herri zerrendak. Ikus Manuel Lekuonak aurkitu eta argitara eman zuen agiri hura, “El Euskera en Navarra a fines del s. XVI”, *RIEV*, 1933, 365-374. orrialdeetan.

Gainera, besteak beste, nafarra genuen Bernat Etxepare, 1545. urtean *Linguae Vasconum Primitiae* (Euskaldunen Hizkuntzaren Hastapenak) zeritzan euskarazko lehen liburu inprimatuaren egilea. Gogoangarria baita ere Juana Albretekoa Nafarroako erreginaren aginduz Joannes Leizarragak itzulirik argitaratu zen *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*, 1571.

Pedro Agerre Azpilkueta “Axular” ezin ahantzia, euskarazko idazlerik handienetakoa, 1643an argitaratu zen *Gero-*ren egilea genuen. Garai hartatik etenik gabe aritu izan dira

euskal idazleak Nafarroan, eta ezin aipatu gabe utzi gure mendeko Nikolas Ormaetxea “Orixe”, hainbeste idazlanen artean *Euskaldunak* (1950) poema mardularen egilea.

Baina, *Lingua Navarrorum* zer zen jakiteko, inork zalantzarik izan ez dezan, on zaigu agiriak lekuko jartzea. Liburu honetan bertan (68. orrialdean) dugu Iruñeko apezpiku Petrus II.aren aipamen hura, *unamaizter* eta *buruzagi* hitzak erabiltzen dituen. Beraz, hori irakurriz ez dago inondikako zalantzarik *Lingua Navarrorum* euskara zela eta ez beste.

Aipagarria da J.M. Jimeno Jurío idazlearen *Navarra. Historia del euskera* deritzan liburuko bigarren kapitulua, 43-66. orrialdeetan datorrena, non agertzen dituen anitz lekukotasun zehatz *Lingua Navarrorum*-i buruz.

Fernando Katolikoaren aginduz Albako dukeak 1512an Nafarroa hartu eta Gaztelaren menpeko jarri zuen, Albret errege-erreginak koroarik gabe utziz. (Horren lekukotasun zehatzetarako, ikus Nafarroako artxibozain zen José Yanguas y Mirandaren *Historia de la conquista del Reino de Navarra por el Duque de Alba, general del ejército del rey Fernando el Católico*, Iruñea, 1843). Errege-erreginei Pirinioen haraindiko seigarren merindadea bakarrik gelditu zitzaien; hau da, Nafarroa Beherea.

Baina, gerora ere, hain leialak zituen agramondarren alde eta Gaztelako erregearen aurka maiz aski jaikitzen omen ziren nafar euskaldunak eta horregatik Karlos V.a enperadorearen denboran ahalegintzen omen ziren Iruñean apezpiku gaztelarrak jartzen. Horretaz, ikus berriz ere F. Idoateren *El esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI* liburu beraren 219. orrialdea.

Aipaturiko gertakariok gorabehera, Trentoko Kontzilioaren eraginez, dotrinak herriaren hizkuntzan jartzea gomendatzen zen, eta Iruñeko Apezpikutegiaren bisitetatik ikus dezakegunez, gazteleraik ulertzen ez zuten herrietan euskaraz egitea gomendatzen zen. Hala dakar José Goñi Gaztambidek *Historia de los Obispos de Pamplona* (1985) deritzan obraren IV. liburukiko 390. orrialdean.

Trentoko Kontziliotik irten ziren aginduen arabera bideratu zen auzia, baina ez zenbait eragozpen sortu gabe. Nafarroan 1584ko Pastoral bisitek erakusten dutenez, Allingo Eulz herrixkakoek euskararik ez zekien apeza jarri zitzaielako sortu zituzten eztabaidak hor daude, aipatu dudan Goñi Gaztambideren obra horretan, 479-480. orrialdeetan. Hala eta guztiz ere, 1590. urtean idatzi ziren *Constituciones synodales*-etan finkatu ziren, Pedro de la Fuente apezpikua-
ren denboran, dotrina irakasteko arau zehatzak.

Garai hartan euskaraz ezagutzen den dotrina bakarra Sancius de Elso zenak Iruñean 1561ean argitara emandako *Doctrina Christiana* zen, gazteleraiz eta euskaraz egina. Eta 1621ean Utergako (Izarbeibarra) erretore zen Joan Berriainen mezatarako eskuliburua argitaratu zuten Iruñean bertan. Honen xehetasunak egoki eskaini zizkigun Aingeru Iri-garaik, A. Apat-Echebarne izenordepean argitara eman zuen *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"* (1971) liburuaren 97-101. orrialdeetan.

Gerora, Espainiako Administrazioak tinko jarraitu zuen errege Karlos III.aren *Real Cédula de 23 de junio de 1768* delakoak markatu zuen bidea, lehen eta bigarren mailako eskola guztietan irakaskuntza gaztelera hutsean emateko,

“*únicamente en lengua castellana*”. Ohi bezala, hor erori ziren gure foruzale porrokatuak ere. Ulergaitza baina egia.

Hori baino lehenagotik ere, eskola maisuek, euskaraz egitea debekatzeko kontsigna gisako erregelak zituzten, eta gurasoen hizkuntzan mintzatzen zirenak eraztunez zigortuak izaten ziren. Seme-alabak eskolatu nahi zituzten gurasoek ordea, ezin ba kexatu, beren haurrak ikasketarik gabe geldituko ziren beldurrez. Jokaera horren lehen lekukoetarikoa bat dugu, nik dakidanez behintzat, Nafarroako Galipentzu herriko maisua, 1730. urtean era horretan haurrak zigortzen zituena, Jose Mateo zeritzan galipentzuarrak urte horretako irailaren 14an Orreagako artxiboan utzi zuen lekukotasunak dioenez; Bernardo Estornés Lasak bere liburuetariko batera oso ongi eraman zituen euskarak historian zehar izan dituen gertakariak, *Canto y cantares de Euskalerría. Poemario nacional vasco* (1994) delakoan. Han dator Galipentzuan erabili zen pedagogiarik gabeko hezkuntza ohitura zakarrarena, liburuaren 89-92. orrialdeetan.

Diario de Navarra-tik hor ari izan zaigu Ollarra, oilarkeriak egin nahirik, baina oilandaren gisa. Batetik, *Lingua Navarrorum* euskara ez zela sinestarazi nahian eta, bestetik, egunkari horretan euskara batuaren aurka gipuzkera eta inoiz bizkaierazko artikuluei leku eginaz. Ohartzen ez delako, edo ohartu nahi ez duelako, Euskaltzaindiaren gomen-diozko euskara batuak nafarreran duela bere muina, euskalkiz inoren muinik izatekotan.

Jakin nahi duenarentzat, hor daude lekukoak. Beraz, zergatik ez kezkatu gaur egun gertatzen ari denaz? Non dira giza eskubideak?

Nafarroan euskararekin egiten ari direnari, bidegabeke-
ria deritzat. Bereziki giza eskubideen aurka doalako. Bekatu
honetaz, hizkuntzarekiko eskubideek herrialdeekin ezer
ikustekorik ez dutela dioten jurista horiek isilik daude orain.

Eta hara hor, Nafarroan nola dagoen herrialdea erabat
zatiturik, kasta desberdinetakoak balira bezala *apartheid* lo-
tsagarriaren erara jokatzuz, eskualdekako zatiketa honen ara-
bera: a) euskalduna, b) elebiduna, d) gaztelera duna. Kon-
tuan eduki gabe, adibidez, herri euskaldunetan badirela eus-
kararik ez dakitenak eta baita Tafallan zein Tudelan
euskaldunak ere, euskara gaztelera baino hobeto mendera-
tzen dutenak. Hala denean, gizon bakoitzak zuzenean, be-
rarekin darama edonora bere foru pertsonala, erkidego edo
komunitate baten barnean ezinezkoa baita bestela jokatzea
giza eskubideak hautsi gabe. Espainiako Konstituzioaren *Ti-
tulo preliminar* delakoaren 1, 2 eta 3. artikuluen aurrean ere
ez da zuzena. Bestalde, 1948ko Nazio Batuen Giza Eskubi-
deen Adierazpenak dioena ongi ulertu eta zuzenbidez joka-
tuz gero inongo politikok ez luke horrelakorik egin behar.
Euskaltzaindiak arrazoiz salatu zuen giza eskubideen aurka
doan nafar jurista eta politikoen jokaera hori (ikus *Euskera*,
XL, 1995, 555-562 orr.). Politikoez hiritarrei bakebideak
eskaini behar dizkiete, eta ez elkarren arteko iskanbilak sor-
tarazi. Nafarroako historia zerbait ezagutzea aski da jakiteko
Lingua Navarrorum bertako hizkuntza jatorra zela eta de-
la; euskara, eta ez erromantzea.

Ondotik, uztailearen 4ko 135/1994 Foru Dekretua eto-
rri zen, Nafarroako Administrazioan euskarari eman behar
zitzaizkion tokiak zertan gauzatu behar ziren adieraziz. Bai-
na ez zait aski iruditzen. Oraindik *apartheid* horrek hor ja-

rraizen du, gure erresuma zaharreko herri guztietan eskubide berdinik eskaintzen ez zaiola. Eta horren ondorio agerriak ere hor ditugu. Lekukotzat, hara zer gertatu zen Nafarroako Epaitegi Nagusiak Barañaingo Udalaren kontra jarri zuen auziaz; horren adibiderik egokiena Euskaltzaindiaren salakuntza izan zen, Bilbon 1997ko apirilaren 25ean sinatua (ikus *Euskera*, XLII, 1997, 193-196. orr.).

Gertatuak gertatu, Nafarroako Gobernuak entzungor egiten ari da eta orain ez dio baimenik eman nahi Iruñean aspalditik ari den euskarazko irratitari. Hortik ikus gaur egun nafar agintariek euskara den *Lingua Navarrorum*-i zer opadioten.

Historian hain nabaria zen hutsune horri nolabaiteko konponketa bidea eman nahirik edo, Nafar Gobernuak *Ley Foral del Vascuence* sortu zuen, Aholku Kontseilua jarriz 1996ko martxoaren 11.ean, 135/1996 Foru Dekretuaren bidez. Urralburu presidente zelarik, honako hitzen arabera aurkeztua izan zen: *“Aquellas Comunidades que, como Navarra, se honran en disponer en su patrimonio de más de una lengua, están obligadas a preservar ese tesoro y evitar su deterioro o su pérdida”*.

Eta Dekretu horren 4. artikuluan aipatzen dira Gobernuak berak ezarri zizkion eginkizun nagusiak:

- a) Hizkuntza normalizazioari dagozkion plan orokor eta proiektu arauemaileei buruzko iritzia ematea, horiek onetsi aitzin.
- b) Hizkuntza plangintza eta normalizazioari dagokionez, Gobernuak egingen dizkion galderei erantzutea.
- c) Euskara erabili eta bultzatzeari dagokionez, Gobernuari proposamenak egitea.

Kontseiluaren barruan Berariazko Batzorde hauek eratu ziren: 1) Toponimia. 2) Normalizazioa eta Administrazio Publikoa. 3) Erabilera Soziala eta Komunikabideak.

Erabilera Sozialaren eta Komunikabideen esparruko batzordeari dagozkion gaien artean, Nafarroako 18/1986 Euskararen Foru Legeak bere 27. artikuluan dioena hau da: “Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohizko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatu-ko ditu.”

Euskararen etorkizunari begira, itxaropen zoriontsua ez bairik gabe. Zer asmo ederra, asmo hutsa erdi ustela ez balitz. Plangintza hor da. Baina, ekintza zuzena non da? Aipatu dudan *apartheid* horren eremuak gordetzen al dira? Berriz ere, elebakardunak elebidunen aurka eta *Lingua Navarrorum* galtzaile. Hara hemen gertakariak lekuko:

Euskararen Legeak markatutako helburu hori ahalik eta hobekien bete ahal izateko, Gobernuak Irratien FM frekuentzia berrien banaketarako deia egin baino lehen, Kontseiluaren gehiengoak eskatutako ohiz kanpoko bilera batean, Kontseilukoek Nafarroako Lehendakari jaunari eskatu zioten Iruñerriko deialdi bikoitza egin zezala, gaztelaniazko eta euskarazko irratiarena alegia.

Deialdi bikoitzik ez zela inola ere egingen erantzun zuen Lehendakari jaunak, baina Eremu Mistoko programazioetan “euskara gehiago erabiltzeagatik balorazio handiagoa emanen zela” agindu zuen eta “euskararen aldeko diskriminazioa eginez jokatu-ko zuela”.

Esleipenean, ordea, Gobernuak Kontseilu honi agindutakoa ez betetzeaz gainera, alderantzizkoa egin zuen, eta hori izan zen, hain zuzen ere, 1998ko azaroaren 20ko prentsaurrekoan salatu zuena. Eta horrekin batera, jakitera eman zuen Kontseiluaren gehiengoak 1998ko urrian beste bilera bat egitea eskatu zuela eta Gobernuaren erantzuna ezezkoa izan zela.

Prentsaurreko hori eman zutenek adierazi zuten kontseilukide izaten jarraitzeari buruz behin betiko edozein erabaki hartu aurretik, Gobernuak erantzuna emateko zuen legezko epea bukatu arte itxoinen zutela, abenduaren 24ra arte. Baina, Gobernuaren erantzuna ezezkoa izan zen.

Hori guztiori aski ez dela, Gobernuak ez zuen bete berak Kontseiluari ezarritako arauak agintzen dutena ere; izan ere, urtean bi bilera egitera behartua dago, eta 1998an bat besterik ez baitzen egin, Kontseiluaren gehiengoak egin zion eskakizunari ezezkoa emanaz.

Aldi berean, esan beharra dago Erabilera Sozialaren eta Komunikabideen batzordeak berari zegozkion gainerako gaiak tratatzeko modurik ez zuela eduki, deitua ere izan ez zelako.

Bestalde, Normalizazio eta Administrazio Publikoen batzordean garatutako lanari buruzko ebaluaketa ere guztiz ezkorra izan zen. Administrazio Publikoetako lanpostuen hizkuntz eskakizunak arautzen dituen Foru Dekretu baten zirriborroaz informatzeko besterik ez dute deitu. Batzordeak kritikak eta aldaketa iradokizunak egin zizkion zirriborroari. Baina batzordearen ekarpenek errespeturik gabeko tratamendua jaso zuten eta zegozkien aktetan jasotako tes-

tua ez zetorren bat, ez letraz ezta izpirituz ere, batzordekide gehienek bozketaz erabakitakoarekin.

Kontseilu hau eratzen duen Foru Dekretuak dio: “bi-dezkoa ikusten da organo misto bat eratzea Administrazioaren eta gizarte nafarraren artean elkarretaratu, parte hartu eta elkarrizketatzeko foro modura, hizkuntza normalizazioaren kontzeptu berariazkoa osatzen duten alderdi batzuen gainean botere publikoei aholkua eman diezaieten”. Hala eta guztiz ere, garbi ikusten da Gobernuak ez zuela Kontseiluaren eskakizun eta aholkurik aintzat hartu nahi, eta beronen eginkizun garrantzitsuak (Foru Dekretuaren 4. artikuluan xedatzen direnak), hala nola “euskararen planifikazio, erabilera, sustapen eta normalizazioa”, saihesten aritu zela.

Horiek izan ziren Kontseiluko gehienek azaldu zituzten argudioak. Argitasunaren aldetik begiraturik, oso zentzuzkoak, alegia. Eta ondorioak hor daude, 1999ko urtarrilaren 22an, kontseilukide gehienek beraien dimisioa aurkeztean.

Ausart bezain bikain salatu zituen azken joera horiek J. M. Jimeno Jurío historiagileak “Bai Euskarari Euskal Herri osoan” zeritzan artikuluekin (ikus *Diario de Noticias*, 1999ko urtarrilaren 15ekoan). Izan ere, horretarako zein egokiago Jimeno Jurío baino? Nafarroako euskarari buruz ezagutzen dudan libururik hoberena, historian zehar izandako gorabeherak hain bikain eta zehatz jasotzen dituen, dagoeneko aipatu dugun *Navarra. Historia del euskera* (1997) baita. Edonorentzat gomendagarria, eta egungo politikariek ezagutu beharrekoa noski.

Argi ikus daiteke, gaur egungo agintariak, garai batean erresumari saldukeria egin zioten Beaumontarren jokabide beraren jarraitzaile direla eta ez nafar erresumari hain leial

jarraitu zion Agramont taldearena. Baina bere herriaren alde gizontasunez begiak itzarririk adi egon nahi dutenei, Arturo Campionen *Navarra en su vida histórica* (1929) eta *El Genio de Navarra* (1936) deritzen liburuen berrirakurketa komeni zaie. Gainera, gogoan izan Campion zenak *Lingua Navarrorum* eredugarri hura har eta, ikasi ez ezik, euskaraz idazteari ere eman ziola.

EUSKARARENTZAT ERAGOZPENAK ARABAN

Historian zehar euskarak edonon izan ditu eragozpenak, baina Arabakoak oso larriak izan ziren, bereziki eskoletatik hasita. Orain, horren berri ez dakitenei edo jakin nahi ez dutenei aditzera emateari on deritzat, guztion onerako.

Aita Agustin Kardaberazen *Euskeraren berri onak* (1761) irakurri baizik ez dago. Han agertzen dituen salakuntzak, Araban gertatzen zenari buruz, oso larriak dira. Liburuaren hirugarren kapituluko 16-19. orrialdeetan agertzen zuenez, berri onaren ordeaz berri txarrak dira. Hor salatzen duen garai hartako pedagogia bihurria, bere muinean antipedagogia zen. Ikus dezagun zer zioen:

“Hemen guraso eta maisuak falta handi bat erremediatu behar dute, eta gure Euskal Herriari oraindaino baino mesede gehiago egin. Jenteen artean beste Lenguajerik Euskera baino ditxa gabeagokorik ez da ikusi, eta gure jatorrizko, edo jaiotzako Hizkera ez balitz bezala eta Euskaraz hitz egitea pekaturik haundiena balitz bezala, giza artetik kendu, eta lurpean ondatu nahi dute, eta Eskoletan sortija edo siñalearekin, azote eta kastiguarekin eragotzi nahi dute. Zer erakeria itsuagorik hau baino? Euskaldun prestuak, ez arren horrelako ofentsarik zuen lehenengo eta beti behar duzuen Euskerari

egin. Zuen juizioa non da? Euskal Herrietan nola gauza onik izango da?

Arabian nenbilen batean, hango adiskide, eta Erregeren Guardiako Kapitan baliente batek behin esan zidan: Aita, nola Euskal Herrietan, umeen haziera ona, eta behar den Dotrinarik izango da, baldin Euskera hondatzeko abalegin guztiak egiten badira, eta gure mutiltxo, edo hurrei bildur eta azotearekin Euskera hitz egitea eragozten bazaie? Horiek berek gero edo Eleizagizon edo Etxajaunak izan behar dute. Eta guraso edo Kurak direnean, nola ongi premia den bezala, beren Etxe edo Hergoienetan (Herri txikiei honela Araban deitzen diete) Dotrina erakatsi, eta konfesatuko dute? Nola beren familietako hartu emanak, eta beste behar diren gauzak ondo aditu, eta zuzenduko dituzte? Ikusten duguna da: gazteek Latin gramatika ikasten dutenean, nahiz Gaztelaniaz, nahiz Frantsesez, nahiz Euskaraz hitz egiten dute, eta hori eragozten ez diete. Gramatikako Maisu famatu bat gure egunean zen, Latin gauzak ere Euskaraz erakusten zituen: eta Frantses Euskaldunei Gramatikako Erreglak Euskaraz adierazi, eta erakusten dizkiete. Hala ez Eskolan, eta ez Gramatikan Euskara behin ere utzi behar ez da. Soldadu Jaun honek arrazoi handia zeukan. Abal daitekeen disparaterik bidegabeena da, Euskera gazteei debekatu, eta madarikatua balego bezala kastigatu eta eragozte. Eskolan bertan erakatsi ordu onean, eta Erdaraz jardun dezatela; baina gero libre, nahiz Euskeraz, nahiz Gaztelaniaz: horrekin bietara egingo dira. Bestela Gaztelara gazteak badoaz: han burla, eta lotsa handien kostuan badere, Erderaz ikasten dute: eta nola Euskera kendu zieten, eta jarduten ez duten, beren Herri, edo Etxetara bihurtzean, alde guztietara barregarriak ohi dira: eta egiaz esan ohi da: Gaztelania ez ikasi eta Euskera bai

ahaztu. Gero hemen lotsa handiaz dakusguna: ez hitz egiteko eta ez elkar aditzeko, Erderazko eta Euskarazko nahaspila moldakaitz eta nazkagarri bat entzun ohi da.

Bedeika nik dakidan Maestra estimagarri errespetu handiko bat, bere grazia onarekin, eta kastigu gabe ume inozente sei urtekoei ere, Euskeraz, Erderaz eta Latinez berdin, txit trebetasun handiaz eta ederki lotsarik gabe erakasten diena. Ojala hori bera Maisu guziek egiten balute: mutil mutu, lotu motel gutxiago Herrietan izango litzateke...”

Irakurleari aditzera eman beharrekoa dut, A. Kardabera-zen testu hau, hitzik aldatu gabe, irakurketa errazteko, gaur egungo grafiaz jarri dudala. Bere grafiaren era jatorrean irakurri nahi duenak 1761ean inprimatu zen liburu hartara jo beharko du, edo nik neuk *Euskararen ostarteak* liburuko 53-55. orrialdeetan azaldu nuen jatorrizko erara.

Pedagogiaren aurka doazen ohiturok bikain salatu ziotuen Dulantziko seme zen Paulo Mendibilek ere, Londresen argitaratu zuen *No me olvides* (1829) liburuxkan. Justo Garate zenak eman zizkigun horren berriak bere lan batean. Ikus, “El anillo escolar en la proscripción del euskera”, *Bol. de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkariaren XXVIII, 1972, 174. orrialdean, liburuxka hartan zioenaren zatirik garrantzitsuenak zuzen jasoaz.

Mendibilek han zioenez, bere hizkuntza euskara izanik, eskolan gazteleraz egitera beharturik zeuden, eta inor lerratzen bazen euskarazko hitzen bat mintzatzerara, nahiz eta bularretik xurgatu zuen “Ama” aipatu “Madre”-ren ordeaz, edo gurasoengandik ikasitako “Jaungoikoa” aldarrikatu “Dios”-en ordeaz, zigorrik larriena leporatu beharra zuen, eraztuna eskuratu ez ezik, eskolako mutilik ankerrenak galtzak jaitsei

eta maisuaren mahaian ipurdiz gora jartzen baitzuen, maisuak idizilez zigortzeko. Horren beldurrak behartzen zituen haurrak gazteleraz egitera eta gurasoak, haurrok eskolatuak izango baziren, euskara baztertu eta gazteleraz ahalegintzera.

Arabar jator batentzat ahaztu ezinezkoak dira Odon Apraiz zenak burututako hainbat ikerlan Arabako euskarari buruz, Erdi Arotik gure mende honetara arte. Ikusi besterik ez dugu askoren artean buruturiko *Odon Apraizi omenaldia* (1981), eta liburu honetan irakur bereziki I. Baztarrikaren lana 9-21. orrialdeetan. Horrez gainera, ikus baita ere E. Knörr-ek 1978an *Bol. de la Institución Sancho el Sabio*-ren XXII. liburukian argitara eman zuen lana.

Arartekotzan nengoela, UAkoengandik (Unidad Alavesa) entzuten nituenak kontuan harturik, arabarren jakinerako argitara eman nuen Eguberrietako txartel batean 1695. urtean Gasteizen Gabon gauean kantatzeko Burgosen inprimatu zen Villancico bat, euskaraz eta gazteleraz zegoena. Gazteleraz gainera euskara ere bertakotzat har zezaten, bertako hizkuntza jatorra hain zuzen.

Bestalde, oroi 1698. urtean Calahorrako Apezpikuaren agiria, non agindua ematen zuen bere babespeko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa parteko herri euskaldunetan dotrinak eta predikuak euskaraz emateko.

On deritzat Araba elebidunari, alde batetik bertako jatorrizkoa oraindik zenbait herritan egiten den euskara delako eta, bestetik, legez Euskal Autonomia Erkidegokoa delako. Horren arabera, 1979ko abenduan onarturiko Estatutuaren barnean ibili beharra dugu, gaztelera eta euskara, bi hizkuntzok ofizialtzat hartuz, eta 10/1982 azaroaren 24ko euskaren normalizazio legeak onartzen duenaz baliatuz. Ez bai-

ta legezko talde politiko bakoitzak berak deritzon eran erabiltzea, gehiengoak legeztatuan baizik.

Hala ere, atzo arte falangista edo karlista-frankista izan eta orain “demokrata” azaltzen diren askorentzat, nonbait ez da zilegi euskara Araban behartzea. Era horretatik hurbil dabiltzala esango nuke UAko horiek, eta ez da batere harritzekoa euskararen etsai izatea. Horientzat gaztelera omen Arabako hizkuntza. Nonbait, ez dute ezer jakin nahi bertako jatorriaz, ez eta oraindik Zigoitian, Aiaran edo Aramaion euskaldun irauten dutenez ere; eta gutxiago Bizkaitik eta Gipuzkoatik bertara joanak diren euskaldun ugariez. Ez eta probintziako toponimiaz eta arabarren euskarazko deiturez ere. Baina nik neuk ere aitona nuen arabar euskalduna, eta arbasoen jatorriak etsi ezinezkoak ditut.

Euskal Autonomia Erkidegoan esan beharra dago haurtzarotik elebidun direnek gainerako hizkuntzak lasterrago ikasteko ahalmena dutela; aldiz, hizkuntza soil bat baizik ez dakitenei kaltegarri zaie beraien hertsitasuna. Gainera, hizkuntz tipologiaz elkarregandik hain desberdinak diren euskara eta gaztelera hezitzen direnek berez dute beste batzuk lasterrago ikasteko ahalmena. Eta inoiz ez ahaztu, elebakardunek beren baitan eramaten duten itsutasuna, besteena gorrotatzerainokoa dela. Horiek horregatik jartzen dute gaztelera munduko hoberena balitz bezala. Baina, mundua handia izaki eta, hizkuntza asko dira bertan. Hori bai, denak errespetagarriak, bakebiderik nahi baldin badugu. Zeren hizkuntza bakoitzak bere inguru jakina du eta inguru bakoitzak bere balio bereziak, elkar ulertu beharrez anaitasunerantz garamatzatenak.

Arabako zenbait euskal idazle irakurri ditugunok ezingo ditugu nolanahi ahantzi Aramaioko Pedro Barrutia (1682-1759), Sabandoko Juan Bautista Gamiz (1696-1773), Okondoko Jose Paulo Ulibarri (1775-1847), Gasteizko Raimundo Olabide (1869-1942), Laudioko Federico Be-laustegigoitia (1876-1947) eta abar. Ezta nik gure amagandik ikasi nituen Gabon kanta gogoangarriak ere, hark bere aita arabarragandik ikasiak.

Zendu berri dugun Federiko Krutwig euskaltzainari, duela hiru urte, bera euskaltzain izendatu zutenetik mende erdi betetzen zela eta, Euskaltzaindiaren omenez eskaini zitzaion *Iker-10* alea, eta bada bertan lan jakingarririk. Adibidez, euskaltzainkideen lanen artean, Henrike Knörr-ek Federiko Baraibar arabar hizkuntzalariaren eta Julio Urkixoren artean 1906 eta 1917. urteen bitarte horretan izandako gutunen bilduma eskaintzen digu, aurkezpenez eta oharrez, 163-189. orrialdeetan. Benetan jakingarriak kulturaz arduratzen diren arabarrentzat. Eta, nik neuk ere, Arabako Billerlen (Legutio) euskarak bere gogoa lehen aldiz piztu zion F. Krutwig adiskideari eskaini nizkion “Gure amagandiko Gabon kantak”, 299-311. orrialdeetan.

Eta lekukoak jartzean, gogoan izan H. Knörr eta K. Zuazo irakasle eta idazle direnen *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak. El euskara alavés. Estudios y textos* liburu gotorra, 1998an Eusko Legebiltzarrak argitaratua.

TREVIÑO = UDA

1999. urtean, errege Felipe II.aren heriotzako laugarren mendeurreneko ospakuntzek entzute handia izan zuten, ez hainbeste Treviño eskualdeagatik izan diren auziek, aspalditik isil zeudenak eta orain berriz piztuak, eskualde horrek Arabako edo Burgosko izan behar duen.

Norbaitek esan dezake: errege Felipe II.ak zer du ikustekorik Treviñorekin? Espainiarentzat munduko ineriorik handiena eduki zuen errege hark berak zuzenean ez noski. Baina oroi errege Felipe II.aren historiagile bezala kronikari izan zen Esteban Garibai, eta mondragoar hark Treviñori buruz bildu zituenak, nortasunez eta garaiagatik badutelako bere garrantzia; baina egia da inori ez diodala irakurri kronikari hark zer zioen.

Beraz, har dezagun bere lan nagusia, *Compendio Historial de las Chronicas y universal Historia de los Reynos de España* (Anberes, 1571). Lan horren bigarren liburukian (T. II., Lib. XVII, cap. I) irakur dezakegu, garai feudal hartan, nor zen Diego Manrique, Treviñoko kondea, Nafarroako erresumaren barnean. Hirugarren liburukian ordea (T. III, Lib. XXIII, cap. XV), Nafarroako errege Santxo Azkarrak, Gaztela eta Aragoitik bere erresumaren mugak gordetzeko,

adierazten du beste zenbait gazteluren artean nola eraiki zuten Treviñokoa ere. Hara hitzez hitz zioena: "... hizo en la Provincia de Alava el castillo de la villa de Treviño, y reparó y fortaleció más la villa de Victoria".

Baina kronika horietan E. Garibaik gutxitan aipatzen du Treviñoren izen soila, kasik beti "Treviño de Alava" dakar. Beraz, hara hor munduko Inperiorik handiena zen garai hartan, nola agertzen zaigun Arabako eta ez Burgosko. Gaur egun oraindik Felipe II.az eta Espainiaren handitasunez amets egiten duten horiek, erregeren kronikariari ere jaramon egitea beharrezkoa iruditzen zait.

Horretaz gehiago jakin nahi duenak, gogorik baldin baidu behintzat, beste agiri batzuen iturriak ere aurki litzake. Adibidez, Eusko Ikaskuntza erakundeak bere sorreratik laster argitara eman zuten liburuxka interesgarri bat: Joakin Jose Landazuri historiagile arabarraren *Treviño ilustrado* (1921) zeritzana, XVIII. mendearen azkenaldian idatzia eta argitara gabe gelditu zena, gero Juan Allende-Salazar zenaren hitzaurrez Eusko Ikaskuntzak argitaratua. Lan zehatza eta mamitsua benetan.

Adiskide nuen Yon Etxaide zenak behin baino gehiagotan esaten zidan gure herriak 1200. urtean Gaztelaren mende erori zenetik ez duela bakerik ezagutu. Eta hori da Treviñori gertatua ere.

Joakin Jose Landazuri historiagile ospetsuaren liburuxka horren edukia, aurkibidearen arabera, honako hau da:

- 1.- Treviño konderriaren lehen izena eta bere geografia.
- 2.- Orainagoko geografia eta egoera (XVIII. mende bukaerakoa noski).

3.- Treviño hiri sorrera Nafarroako errege Santxo Jaki-tunaren eskutik eta bertako gertaerak Gaztelaren eskura igaro arte.

4.- Gaztelako koroapean bilduz geroztiko gertaerak.

5.- Antzinako Treviño konderriko Hermandadearen oroitzapenak.

6.- Treviño konderri eta hiriarri buruzko berriak, elizaren aldetik.

7.- Treviño hiriaren gobernu politikoa eta orainagoko egoera.

8.- Añastro, Pariza eta Saseta hiriak Treviño konderrian.

9.- Treviño konderriak zituen pribilegioak, ohoreak eta libertateak.

Ondotik, eranskin bezala: San Formerio martiriaren bizitza, Frai Juan Marietakoaren eskutik. Eta, 1302. urtean errege Fernando IV.ak Treviño hiriarri berretsi zizkion pribilegioak.

Hitzaurregile zen J. Allende-Salazarrek zioenez, Llorente kalonje eta historiagileak asmo txarrez baztertu zituen Landazuriren agiri horiek, egiazkoak ez balira bezala, baina ez dira zalantzan jartzekoak, eta horri buruzko zenbait adierazpen eskaini zizkigun.

Gaur egungo auzien aurrean, *Treviño ilustrado* delako liburuxka horrek merezi luke berriz argitaratzea, guztion argigarri.

Treviñoren aurretiko izena Uda omen zen, eta izen hori ibaitik omen zetorkion. Ondorean bere geografiako izen zerrenda dakar eta argi nabari da kasik izen guztiek euskarazko sustraia dutela.

Gaztelako errege Henrikek (Pedro Ankerraren semeak) 1366. urtean Treviñoren aginte osoa eman omen zion Pedro Manrique-ri, eta honen ondokoek zenbait aldakuntza ezarri zituzten, gero Treviñoko duke bihurtuko baitziren. Isasti historiagileak ongi zioen bezala, Gaztelako tituluak ziren horiek denak, zeren hemen, Batzar Nagusien arabera, denak ziren aitonenseme eta ez ziren onargarriak Gaztelako tituluok.

Oroi feudalismo garaiak zirela eta errege zein jaunak, lege guztien gainetik, herriak ahalik eta lotuen edukitzearen aldeko zirela. Herria foruen babespean ez jartzearren, jaunok lortu zuten Arabatik banatzea. Geroztik, historian zehar tira-bira asko erabili izan dira.

XVII. mendean Arabako Batzar Nagusiek ahaleginik aski egin zuten, baina alferrik: konstituzio desberdinak zituztela-eta, lehenean jarraitu behar izan zuten.

Bertako biztanleria, ordea, beti arrazoi praktikoetan oinarritu izan da: Arabaren geografia barnean kokaturik egoitea, arabar sentitzeaz gainera Gasteiz hiriburua hurbil izateia, merkataritzan era guztietako harreman estua izateia, eginkizunak bizkortzea eta hobetzea, bide berriak irekitzearen bultzapena eta abar. Ez dirudi txantxetakoak direnik eskualde horretako biztanleen nahiak, ez horixe.

Orain bertan hor dabilta, La Puebla de Arganzoneko bide egiturak bideratu ezinik. Hau da hau, XX. mende bukaeran, bidea bideratu ezinik! Onak gaude gu Europa Batua bultzaraziz mundu hobe bat lortu ahal izateko. Alajaina!

Inguru berean, ez da intelektualik falta izan Treviño Arabara itzultzearen alde oihukatzeke. Adibidez, F. de la

Fuente Marquinez de Beltrán treviñoar jakitun eta irakasle zenak *Universitas* argitaratu zuen duela berrogeiren bat urte, bertako atal luze bat Treviñori eskainiz. Erudizioz betea, ez zaio umorerik falta, baina mindurarik ere ez. Bere oroitzapenak eta sentipenak hor isurtzen ditu. Erudizioa bai, baina esan beharrekoa iruditzen zait zentzu-orekan huts nabariak ere badituela. Hala ere, Treviñoren epopeia azaltzen du, “feudo insoportable de Castilla” aldarrikatuz. Arabar sentitzen zen eta berri asko eskaintzen ditu. Merezi du lan hori ezagutzea.

Feudalismo garai hartan, kondea izanik jaun eta jabe, aski zen gizon bakar horren nahia, herri guztiaren gainetik herritarren zoriaren jabe izateko. Historiak, zoritxarrez, era horretara jokatzen zuen.

Cadiz-ko Konstituzioaren (1812) asmoetariko bat zen feudalismo harekin bukatzea. Baina, Hirurteko Liberalak (1820-1823), batasunaren izenean federalismoa baztertuz, zentralismo aldera jokatu zuen, zenbait herrialderen berezko nortasuna aintzat hartu gabe. Eta ez zen geldituko gure probintzietako Batzar Nagusiekin bukatu artio.

Ondoren eta jarraipenez, Javier de Burgos-ek 1833an lurralde-sailkapena egin zuenean (Euskal Herriarekin pentsatuaz, noski), “Probintzia Libreetan” (Provincias Exentas) barrendegi gisa zeuden lurraldeei ez zien eman jatorriz tokatzen zitzaien lekua. Horregatik, Treviño Burgosera eta Villaverde de Truzios Santanderrera lotu zituen.

Gure egunotan, ordea, horiek historia zuzenari bihurtzeko asmoz, Jose Luis Lizundia jaunak, 1981eko maiatzaren 27an txosten bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritza bere aldetik jar zedin Castilla-Leongo

agintariekin harremanetan, Treviño berreskuratzeko ahalegina egiteko. Baina une hartan gure politikariak ez ziren gehiegi ahalegindu.

Orain, Treviño bertatik, antzinako izen zaharraz baliaturik ari da Uda deritzan taldea, beraien naturalezaz eta historiaz zor zaienaren eske. Baina badirudi, Javier de Burgos zenaren gogoak bizirik dirauela Espainiako Estatuaren baitan. Zeren, ulergaitza iruditzen zait, bakearen bila gabiltzan demokrazia batean, Uda taldearen aurka Madrildik Ynestrillas eskuindarra bere taldearekin etortzea eta Guardia Zibilen babespean Treviñon istiluak sortzea.

Batez ere, gaur egun ulertezina edo inoiz ulertuko ez dudana, zera da: feudalismo garaian, gizon batek herri osoaren aurka erabakia, orain, demokrazia garaian, herri guztia-
ren, edo herritar gehienen, arrazoizko nahiarekin bete ezina. Non daude giza eskubideak? Non da gizonaren logika? Non demokrazia?

EUSKARA EPAITEGIETAN

Euskaltzaindiak, 1999ko irailaren 26an, Aramaion antolatatu zituen hitzaldietan aurkeztu nuen “Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera” txostena, ONU, Unesco eta Euskaltzaindiaren arautegian oinarriturik zegoen. Izan ere, gure erakunde honen arautegia 1920. urtean egina da eta 1976. urteko otsailaren 26an Espainian Errege-Dekretuz onartua izan baitzen (ikus, argibide gehiagotarako, liburu honetako 51. orrialdea). Eta horien arabera, euskararen alde nola joka dezakegun adierazten nuen.

Euskarak lehen aldiz izan zuen ofizialtasuna, epaitegiak barne, Nafarroako erresuman izan zen, bertako historiak hala erakusten duenez. Uste hori nuen nire irakurketen arabera, eta horren lekukotasuna agertzen digu Jimeno Juríok ere bere *Navarra. Historia del euskera* liburuaren 54. orrialdean, bertan erabiltzen ziren hizkuntzak orokortasunean begiraturaz. Beraz, ez nenbilen oker.

Horrez gainera, Iparraldean gertatu zena aditzera eman nuen. Eta ez edonolako ofizialtasuna, epaitegietan erabili beharrekoa baizik. Eta, gaur egun, han ez ezik hemen ere epaitegietan euskarari sarrera ematea nekeza zaigu, nahiz eta

gaztelera zein euskara maila berean ofizialtzat hartuak izan. Badugu hor euskaldunok eta Euskal Jaurlaritzak zereginik.

Dagoeneko kontatu dugun bezala (ikus 54. orrialdea, eta bertan aipaturiko Henriette Walter-en liburua), Frantziako Estatuaren barnean XVI. mende hasieran erabaki zen pertsona bakoitza bere hizkuntzan epaitu beharra. Bazirudien behingoz bide egokia hartu zela, baina ez zuen asko iraun, eta geroztik hango hertsitasuna nabarmenagoa izan da.

Luis XII.aren ordenantza hura baztertzearen ondoriozko gertakaririk beltzena Bordelen ezagutu zen 1609. urtean. Pierre Lancre epaile zelarik, frantsesik ez zekiten ehunen bat euskaldun emakume sorgintzat epaitzean. Ulertzen ez zuten hizkuntzan zigorpeturik: “oui” (bai) esan arte zigorrez behartu zituzten eta zigorraren ondotik sutan errez heriotzara eramane. Gezurra badirudi ere, hala gertatu zen.

Sineskera zaharretan bai omen ziren sorginak; horretaz zenbait berri eman nuen “Sorginak Donibanez” artikuluan, ikus nire *Landuz* (1983) liburuaren 26-31. orrialdeetan. Baina zehaztasun gehiagoz ikus dezakegu Gustav Henningsen-en *El abogado de las brujas. Brujería vasca e Inquisición española* (1983) liburu bikainean. Gaur, ordea, badakigu fisikoki sorginik inoiz ez dela izan. Eta inork ziurki sorginkeriarik izatekotan, inkisidoreek eta Pierre Lancre bezalakoek izango zuten, gaiztakeriaz beraien lepoan baitzeramaten sorginkeria.

Maiz esana dudana bezala, gure Nikolas Ormaetxea “Orixe” zenak itzuli zuen Nazio Batuek 1948ko abenduaren 10ean azaldutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1949an *Alderdi* aldizkarian argitaratzeko, *Giza-eskubide guztien Aitorkizuna* izenburuz.

ONUren agiri hura eratu eta gehien bultzatu zutenetakoa, aita Proventzakoa eta ama Euskal Herrikoa zituen René Cassin baionar jurista ospetsua izan zen, bere lanen eskergarri 1968an Bake Nobel saria jaso zuena.

Hala ere, 1992an Europako hizkuntza gutxituen alde Europako Kontseiluan aurkeztu zen Eurogutun hura orain arte onartzeke egon da, Frantziak betoa jarri ziolako. Baina, Frantziako Estatua ez ote zen ba izan ONUren agiri hura bultzatu zutenetakoa?

Hegoalde honetan, berriz, bi hizkuntzok ofizial izendatuak izan arren, oraindik epaitegietan euskarari sarrera emateko eragozpenak ditugu. Nola daiteke hori?

Gure jokabideok aurrera eraman ahal izateko, oroi bide ziur bezain zehatzak eskaintzen dizkigula dagoeneko aipatu dugun Leah Levin-en *Giza eskubideak: galde-erantzunak* (1999) liburuak.

Hizkuntzari buruzkoan, arrazoia ez dago txikiagoa edo handiagoa izatean. Gu ere munduaren zati bat garenez, naturak eman digun unibertsaltasuna bakoitzak beretik darماغu eta, besteak ukatu gabe, hein batean unibertsalagoak gara gure gizartetik gizarte-orekari eutsiz jarraitzen badugu.

Horregatik, nekeza egiten zaigu pertsona bakoitza berrari ulerterrazena zaion hizkuntzan ezin epaitu izana. Giza eskubideen arabera, hori ez baita zilegi.

Gai honetaz interesgarria iruditzen zait berriki Andres Urrutia euskaltzainak argitaratu duen “Manuel Gorostidi eta Bonifazio Etxegarai: euskara, lege eta epaitegietan” deritzan artikulua ere ezagutzea. Ikus *Karmel* aldizkariaren 229. zenbakiaren 15-32. orrialdeetan.

Bakeari buruz hitz asko egiten da, baina lortu ote genezake hizkuntza txikiagoak ukatuz? Egiazki, bakerik nahi baldin badugu, guztiok elkar errespetatu beharra dugu, naturalzak eman diguna bizirik iraunarazteko eskubidea emanaz eta laguntzak eskainiz. Eta horretarako legezkoena da epaitegietan bakoitzak bere burua ondoen defendatu ahal izateko egokien zaion hizkuntzaz baliatzea.

Hori da bide zuzena giza eskubideak guztiontzat onartzean. Gogoa eta nahia ezin ditzakegu utzi paper soilean idatzirik, erabilera da beharrezkoena. Bestela, eibartarrok isekaz erabili ohi dugun esaldia gogoratu: Esana bat eta egi-na bi, esanaren kontentuz izan hadi.

* * *

Politikaren munduan erraz aldatzen dira iritziak: atzo on zena, gaur ez; eskaini bai, baina eman ez, eta abar.

Arartekotzan nengoela, Donostian zegoen Frantziako kontsulak deitu ninduen, elkarrekin mintzatzeko gogoa agertuz, bilera baten eskariz. Eta hala bete nuen, Gasteizen elkarrekin bazkalduz. Nire iritziak jakin nahi zituen nonbait, eta nire karguaren arabera nola jokutzen nuen adierazi nion. Administrazioaren aurrean hiritarren alde legea zuzen betearaziz, hor agertzen nituela nire iritzi zuzenak eta ez bestetan.

Une hartan, berriak genituen abertzale taldeen aldetiko autodeterminazio edo burujabetza eskari deiak. Eta, behin eta berriz, berak galdetzen zidan zer uste nuen horretaz. Arartekoaren betebeharretan ez zegoela holakorik eta ez nintzela sartuko gai horretan, erantzun nion.

Baina, behin eta berriz hain arduratsu galdetzen zidanez, esan nion nire iritzi pertsonala 1948an ONUk Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsal hartan zehazten zela, Frantziak beste nazio demokratikoekin onartua, eta han zetorrela edozein pertsonak zein talde edo herrik, hauteskunde bidez, burujabetzarako eskubidea duela. Orduan ez zekien zer erantzun ere, eta eman zidan erantzun bakarra honako hau izan zen: Giza Eskubideen onarpenera beste garai batekoa zela, haiek beste denbora batzuk zirenez gero.

Nire erantzuna ordea: Munduko gerrate izugarri baten ondotik onartua baliagarri ez bazen, ea beste gudu baten zain egon beharra ote dugun. Demokrazia herriaren burujabetza da eta horretarako ez dago grekeraz asko jakin beharrik, demokraziak zer esan nahi duen jakiteko. Adibide soil bat jartzekotan, ni konforme nengokeela gure hizkuntza, European diren hizkuntzetarik zaharrena, legez bizirik jarraitzeko neurriak hartuko balira, gainera gogoan izanik Frantzia eta Espainiako hizkuntzarik zaharrena dela euskara. Baina horretarako Frantziak bere Konstituzioaren 2. artikulua aldatu beharra duela eta era beran Espainiakoak bere 3. artikulua, horrela izan ezik gure euskararen ukapena zelako eta aldi berean baita ONUren adierazpenarena ere.

Gaineratu nion, itxuraz frantsesei Kanadako Quebec herrialderako on zaiena, zergatik ez beraien Estatu barnerako? Baina alferrik, ez zuen ulertu nahi. Gaineratzen nion esanaz, herriak bere izate naturalean errespetatzen ez badira, oso normala zela horien aldetik burujabetzaren eskaria. Zeren mundua orotarikoa denez gero, bakoitzak beretik osatzea dela legezkoena, elkarkidetzan biziko bagara.

Harantzago joanaz nioen, nik gazteleraren aurka ez nuela ezer, nire bigarren hizkuntza nuela eta maite ez ezik beharrezko; hala ere, etorkizunari begira, hirugarren baten premian geundela zientzia, teknika eta harreman zabalagoetarako, eta beharrezko ikusten nuela ingelesa, noski. Aurretik Quebec aipatu nionez eta ondotik ingelesaren baliapen hobe, nire erantzuna ez zuen hain gogoz hartu.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak bere sarrerako hitzaurrearen azken hitzetan argi dio: Adierazpen hone-tan etengabe oinarrituta, alde batetik eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatu behar dela irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorren eta orokorrean ezartzea ziurtatuko dela, bai Nazio Batuen barnean diren herrien artean, bai eta Estatu baten menpean dauden lurraldeetan ere.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsal hori edozein hiritarrek zentzuz ulertzeko eran egina da, baina zenbait juristak, bakoitzak bere gogoaren arabera, analisiak egiten dituzte. Horretan okerrenak elebakardunak izaten dira, ulertzen ez duten hizkuntzari oztopoak jarri nahian. Adibide bat jartzekotan, hara hor Javier Praderak *El País* egunkarian 1998ko azaroaren 22an idatzi zuena, “Análisis Nacional. Autodeterminación Vasca” zeritzan artikuluan, non esaten zuen, besteak beste, Sabin Intxaurrea Eusko Jaurlaritzako Justizia kontseilariak gehiegi nahasten zituela gizabanakoaren eskubideak taldeko edo kolektiboekin. Baina, jurista izan beharra ote dugu ONUren sarrerako hitzok ulertzeko? Herriarentzat idatzia ez ote zen?

Horrez gainera, Adierazpen horren 2. artikuluko lehen zatian ikus dezagu zer dioen: "...eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorteria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik". Euskaldunok giza kolektibo bat ez ote gara? Eta jatorrizko bereizkuntza hau, Europaren naturalezak emana ez ote? Hau da, gure herriaren euskaldun izaera berezia eta jatorra, gaur egungo politika taldeak asmatu baino lehenagokoa da.

ONUren Adierazpen horren 22. artikuluan irakur genezake beste honako hau ere: "Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa".

Baina, nork ukatuko digu kulturaren tresnarik baliagarriena hizkuntza bera dela? Horregatik dator 26. artikulua-
ren hirugarren zatian: "Gurasoek lehenasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko". Eta, bukatzeko, 30. artikuluan irakur daiteke beste hau: "Adierazpen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Adierazpen honetan bertan agertutako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo jardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik".

Hortik atera kontuak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, zenbait juristaren esku uzteko baino askozaz serioagoa dela. Herriaren zentzuzko jokabideak baizik ez gaitu

eramango demokraziaren bidera; grekeraz “demokrazia” herriaren burujabetza baita, eta horren arabera egin zen ONU-ren Adierazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntzak ofizial izanik, euskalduna euskaraz epaitzeko eragozpenak badira, zer ez da gertatuko Europako Kontseiluak prestaturiko Eurogutuna onartzerik nahi ez zuen Frantziapen dagoen Euskal Herrian? Orain Frantziak Eurogutunari sinadura eman nahi omen dio, baina bere Konstituzioaren 2. artikulua aldatu gabe. Beraz, era horretara, epaitegien aurrean Frantziako gainerako hizkuntzek legez ez lukete inolako eskubiderik. Bide horretatik nora goaz? Non da Europaren batasuna eta bertako hizkuntza naturalen etorkizuna?

Hainbeste urtetan lortu ezinez, azkenerako euskara legez onartua izan den Euskal Herriaren parte batean ere, oraindik euskalduna euskaraz epaitu ezinik gabiltza. Zer itxaron genezake bakoitza berari aukerakoen zaion hizkuntzan epaitu ezik?

EUROGUTUNA

Pozez irakurri nuen 1999ko urriaren 11ko *Egunkaria*-k bere 15. orrialdean zekarren berria, “Eurokarta duintasunez sinatzea galdeginen dute Baionan urriaren 24an” izenburupean, non dei egiten zuen Frantziako hizkuntza gutxituen alderako elgarretaratzera, Baionan, urriaren 24an.

Baionan Abertzaleen Batasunak, Berdeek, CFDT sindikatuak eta AEK-k bat egin zuten ekimenarekin, Eurogutunaren sinatze “duina” galdegiteko. Ekintza bikaina benetan.

Orain arteko gure politikariak gehiegi nahastu izan dira elkarren arteko taldekerietan, beharrezkoena geroko bazterturik. Izan ere, herri nortasunez, zer dugu gure hizkuntza gutxitua baino baliagarriagorik? Orokorki, denok gara Europaren osagarri, hemen ez da inor sobera eta arrazoa ez dago gehiengoan edo indarraren baitan, elkar errespetatzean eta errespetaraztean baizik. Horretarako, egia hori aurrera eramango bada, hizkuntza gutxituetako biztanleek zuhur jokatu beharra dute.

Nondik nora bideratu beharra dugun eredurik ere ez zaigu falta. Nik zuzen ezagutu ditudan artean, adibidez, hor dugu Suitza konfederatuaren Konstituzioa, hor txekia-

rrek txekera gutxituarentzat hautatu zuten jokaera, hor Tirol Hegoaldean hizkuntza gutxituaren babespena eta abar.

Ikasketak gazteleraz egin zituen euskalduna izanik, helvetiar konstituzioa ezagutzeak iratzartu ninduen eta hortik bihurtu nintzen euskaltzale. Mundu hau bakoitzak beretik osatu behar duela iruditzen zaidalako.

Estrasburgon Europako Kontseiluak eskualdeetako edo gutxituriko hizkuntzei buruzko Eurogutuna 1992ko otsailaren 19-21ean aurkeztu eta laster European Ombudsman Institute erakundeak batzarra antolatu zuen, bere eskualdean hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen ziren herrietako arartekoak deituaz. Ombudsmanok, Bonn-eko Legebiltzarrean bildurik, Eurogutun horren aurrean, bakoitzak bere iritziak agertzea eskatzen zitzaigun. Egia esan, guztiok ahobatez onartu genuen. Eta inori ez zitzaion iruditzen etikoa ombudsman batek bere eskualdean birizik zirauten hizkuntzak ez jakitea. Lehen-lehenik, administrazioaren aurrean, hiritarren eskubideak gorde behar zituenarentzat nahitaezkoa iruditzen zitzaigun bertako hizkuntzak ezagutze hori.

Irizpen horren giropean egin nituen 1992 eta 1993ko Ararteko txostenen aurkezpenak. Eurogutunaren kopia ere zabaldu nituen, baina gure politikarien artean nonbait ez zuen arretazko jarrera egokirik izan. Gero, gai horren inguruan Herrialdeko Ombudsmanaren garrantziaz hitzaldiak antolatu genituen Gasteizen. Han, 1993ko urriaren 29an, Tirol Hegoaldeko Ombudsmann den Dr. Werner Palla jaunak eman zigun hitzaldi jakingarriak ikasbiderik aski eskaini zigun, hizkuntza gutxituetan zelan jokatu behar genuen. Baina, zoritxarrez, gure politikorik azaldu ez eta Jaurlari-tzan hizkuntz politikaz arduratzen zenik ere ez.

Gutun horren inguruan, *Euskararen ostarreak* liburua-
ren 55-60. orrialdeetan eman nituen zenbait xehetasun, iri-
tzi eta adierazpenetan oinarriturik.

Handik laster jakin genuen, berriz ere, gure eta Europa-
ren Batasun eta bakebidearen zoritxarrerako, hizkuntza gu-
txituen aldeko gutunari Frantziak betoa jarri ziola. Eta orain
arte hor jarraitu izan du, onespeneren faltaz eta europarron
ahalkegarri. Jokaera maltzur hori aldatu beharrekoa irudi-
tzen zait beranduegi izan baino lehen.

Europar zein Ameriketara, Estaturik gehieneko konstitu-
zioetan ez da inoiz jartzen hizkuntza ofizialtasunik. Baina,
aitortu beharrekoa da, hedatuenerik berez dutela indarrik
gehien eta *de facto* agertzen direla besteak baino egoera ho-
bean. Horren arabera, ez luke behar laguntza berezirik. Bai-
na, hara hor, Frantziako Estatu Kontseiluak bere esku du
hizkuntzei dagokien arazo hau eta bera da Europako Bata-
sunean hizkuntza gutxituen aldeko gutunari betoa jarri dio-
na, bere Konstituzioaren 2. artikulua kontrako omen
dela eta. Orain onartu duela, zer gertatuko ote bere Esta-
tu barnean?

Artikulu horrek, horrela, Europaren izaera naturala uka-
tzen du eta anaikero elkartasunean bizi ahal izateko era
arriskuan jarri. Bestela, esan dezatela nor noren menpe egon
behar duen, Europa Frantziarena ala Frantzia Europarena?

Espaniak ere, 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua alda-
tu behar luke, Estatupean dauden hizkuntza guztiak Konsti-
tuzio beretik onartzeko, Suitzan XIX. mende hasieratik du-
ten bezala. Horri buruz, ikus bere garaian Euskaltzaindiak
eskatu zuena (*Euskerak*, XXIV, 1979, 131-132. orr.). Ez bai-
ta egokia autonomien baitara uztea zenbait eskualdetako

hizkuntzak ofizial izan ala ez. Haserreak sortzeko hori baita biderik egokiena, eta ibiliak erakutsi digu bertako hizkuntza jatorra errespetaraztea eskatzen dugunok zenbat haserre leporatu behar izan dugun.

Gainera, esan beharrekoa iruditzen zait, ez Frantziak eta ez Espainiak ez diotela jarraitu giza oreka gordetzeko hain eredugarri den Suitzako Konstituzioari; baina ezta ONUk 1948. urtean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2. artikuluan gomendatzen zuenari ere.

Berriki, Lionel Jospinek agindu omen du Eurogutuna sinatuko duela. Hala bada, betor ordu onean. Baina ez dadila gertatu F. Mitterrand-ekin bezala, 1981eko maiatzean presidentetarako hautagai zela agindu bai, baita urtebete geroago, 1983ko maiatzaren 26an agertu ere *Journal Officiel*-ean Unibertsitate aurreko hezkuntzetan bertako hizkuntzak irakastea, euren artean euskara aipatuz. Baina, karguaz jabetu zenetik, hori aurrera eramaten ez zen ahalegindu. Beraz, asmoa hor gelditu zen hankaz gora. Gai hauetaz, ikus beste behin ere Henriette Walter-en *L'Aventure des Langues Occident: leur origine, leur histoire, leur géographie* (1994).

Eurogutuna zertan den argitzeko, laburki eman ditza-dan bertan jasotzen diren punturik aipagarrienak: hasteko, sarrerakoan, Europak bere jatorriz duen hizkuntz aberastasuna adierazten du, denak osagarritzat joaz eta gizarte-oreka egokia lortzeko arau juridikoen beharra aipatuz. Horretarako, lehen partean erabaki orokorren adierazpena dakar, ondokoetan zehaztasunak agertzeko.

Bigarren parteko 7. artikulua dioenez, Eskualde tipietako hizkuntza gutxituei dagokienez, erabiltzen diren herrialdeetan politika bideak egokitu behar zaizkie, praktikara-

ko bideak indarrean jarritz eta maila guztietan behar diren aukerak eta bitartekoak ipiniz, hezkuntzan zein hizkuntz irakaskuntzan. Politika aldetik, debekatu egiten da hizkuntza tipiagoa ukatzea, bai eta garapena arriskuan jarritz baztertzea ere. Horrez gainera, hizkuntza gutxitua erabiltzen ez dutenentzat, mintzatzen direnen herrialdean bizi badira, nahi duten guztiek ikas dezaten aukerak jarriko dira. Gurasoek hautatzen dutenaren arabera, maila guztietako ikasketak beraien hizkuntza jatorrean egiteko aukera emango zaie. Aldi berean, hizkuntzarekin batean bertako kultura jatorrean irakaskuntza ere bermatu nahi da, horretarako beharrezko diren irakasleak prestatuz.

Era horretara jarraituz, 9. artikuluan, beste honako hauek azaltzen ditu: Justiziarako ere, bi aldeetariko bati hizkuntza gutxituan epaitzearen eskaria aski zaio, bere burua berea duen hizkuntzan defendatu ahal izateko. Horretarako, tribunalak, beharrezko diren bitartekoak jarri beharko ditu, hizkuntza gutxitua dakitenekin osatuz eta aldi berean agiriak ere bere hizkuntza jatorrean jarritz.

Ondotik, 10. artikuluan: Administrazio agintariak hizkuntza gutxituen erabilera lehentasunez eta bermez zaindu beharko dute gizarte harremanetan, idazkietan ulergarri izatea zainduz, herriari begira administrazio formulak eta testuak elebitan argi jarriaz, hizkuntza ofizialetan aukerako erabilera eman ahal izateko. Ohizko toponimia ere eskualde bakoitzeko eran jarriko da.

11. artikulua, berriz, komunikabideei dagozkien arauak eskaintzen ditu, hizkuntza gutxituek, gutxienez, irratia bat eta telebista bat izan ditzaten. Aldi berean, horren lagunga-

rri, prentsa sortaraziz eta bultzaraziz. Horien guztien beharra baita gizarte demokratikoan.

12. artikulua, kultur eraikuntzan eta laguntza eskaintzean oinarritzen da: biblioteka, akademia, antzerki, zinema, eta aldi berean literatur produkzioa, zinematografia eta abar, teknologia berrietan hornituak noski.

13. artikulua gizarte bizitza eta ekonomiari buruzko ekintzak azaltzen ditu.

Eta, 14. artikulua, guretzat hain interesgarriak diren mugaz gaindiko harremaneri buruzkoa. Oroi Europako bi Estatu hertsienetakoen artean gaudela eta muga hori eteteko hizkuntza baino arma hoberik ez dugula. Anai edo kide-rik hurbilenak, lege natural guztien aurka, mugaz zatiturik eduki gaituztela, eta orain dugula ordua Europa Batuan elkartzeko.

Bukatzeko, Gutunaren erabilerazko gomendioak, bide-agarri egiteko batzorde lana, eta abar.

Hori guztia kontuan harturik, ideia bikaina iruditu zitzaidan Baionan 1999. urteko urriaren 24an egin zuten manifestazioa. Demokrazia lortzeko herria iratzartu behar baita.

HISTORIAGILEAK HISTORIA EZAGUTU BEHARRA

Historia gaia errazegi nahasten da alde guztietatik begiratu ezik. Uste horretaz ahaleginu nintzen Hondarribiko elizaren historiagintzan, alde batetik ez ezik beste zenbait alderditatik lekukotasunak ikusiz eta kontuan hartuz, horrela osatu bainuen *Santa María de la Asunción de Hondarribia. Historia, arquitectura y arte* (1998) liburuan historiari zegokiona.

Hor oinarriturik, ez nuke esan beharrik Hondarribia eta bere inguruak Nafarroako erresumakoak zirela 1200. urtean Gaztelako errege Alfonso VIII.ak erresuma hari itsasorako irteera kendu arte. Ikusi besterik ez dugu Fausto Arocenaren *Guipúzcoa en la Historia* (1964) liburuko VIII. kapitulua.

Parte honetan horregatik agertu nahi dut kapitulu hau adierazgarri, zenbait historiagilek jakin dezaten esku artean duten lana alde guztietatik ikusiz ikertu beharrekoa dutela.

Gainera, uste dut nahiko argi utzi nuela *Hondarribia* aldizkarian (1997ko urtarrilean) 74. zenbakia, 18. orrialdean: “Gaztelako erregeen menperatze hura eta XVI. mendeko gudua” zeritzan artikulua hartan. Zeren oraindik ere, askok

eta askok 1521eko gudu hura Espainia eta Frantziaren artekoa zela uste baitute.

Egiazko historiagileentzat esan beharrik ez nuke Nafarroari buruzkoan Arturo Campión-en *Navarra en su vida histórica* (1929) eta José Yanguas y Miranda-ren *Historia de la conquista del reino de Navarra por el Duque de Alba, general del ejército del rey Fernando el Católico* (1843) ezagutu beharrekoak direla gai hauetaz zerbait jakin nahi duenarentzat. Horietan lekukotasun zehatzez irakur dezakegu zein sartu zen indarrez, su eta gar, hainbat herritan heriotzak eginaz.

Beraz, nork politizatu du gure hizkuntza? Hori galde niezaioke Carlos Rilova Jericó historiagileari, Hondarribiko historiari gatazkak jarri dituelako. “Luis de Uranzu” Kultur Taldeak argitaratzen duen *Boletín de Estudios del Bidasoa*-ren 17. zenbakiko “Del euskera y sus usos en la Edad Moderna” lanaren hasieran, 63. orrialdean agertzen duenagatik. Hor dakarrenez, Euskal Herriko abertzaleak omen politizatzeko horren errudun.

Gainera, hori adieraztean, *Euskararen ostarteak* (1998) deritzan nire liburua ere aipatzen du. Baina ezer ulertu ote zuen? Edonork ikus dezala nire liburu horren 102. orrialdean nioen honako hau: “Zehazki, *Real Cédula de 23 de junio de 1768*, Karlos III.ak aginduaren arabera, lehenengo eta bigarren mailako irakaskintzak (enseñanza primaria y secundaria) Estatuko eskola guztietan egin zitzatela ‘únicamente en lengua castellana’. Baina lehenago ere, maisu-maistrei isilpean, era horretako aginduak emanak zituzten Espainiako erregeek, gaztelerari bakarrik bidea emanaz. Adibidez, begira

1717an Felipe V.aren zer agindua, Soldevilaren *Historia de España*-ren bosgarren tomoak 333. orrialdean dakarrena”.

C. Rilova Jericó-k, horrez gainera, 87. orrialdean dio gure hizkuntzaren antzinatasuna “vasco-iberismo” mito hartan oinarriturikoa dela. Baina, uste hori ez ote zen sortu aspaldiko gaztelar ikertzaileengandik? Gaur egungo hizkuntzalarien artean ez dago zalantzarik euskara hizkuntza preindoeuroparra dela. Horregatik, iturriak behar bezala erabili izan balitu jakingo zuen, bai horixe, Antonio Gómez Moreno eta Ramón Menéndez Pidal ikertzaile bikainek egoki eman zutela gai horren berri. Gainera, Antonio Tovar eta Koldo Mitxelenarekin mintzatua zen Gómez Moreno euskararekikoan. Bestalde, ikus Mitxelenaren “Comentarios en torno a la lengua ibérica” deritzan lana, *Zephyrus* aldizkariaren XII. aleko 5-23. orrialdeetan (Salamanca, 1961). Eta gure hizkuntzalari handiaren beste zenbait agiri *Textos arcaicos vascos* eta *La lengua vasca* liburuetan.

Lekukoak jartzean, gai bakoitzean horietaz ongi jakiteagatik ospea irabazi duten ikertzaileek izan behar dute eredu eta aipagarri.

Gogoan izan, halaber, Aragoi eta Gaztelako Erregetza biok, edonork dakienez, XI. mende hasieran, Nafarroako Santxo III.ak (Santxo Handia zeritzanak) sortu zituela musulmanei kendu zizkien lurraldeetan, eta bere semeen artean zatitu zituela: Gaztelako erregetza sortuz Fernando I.arekin eta Aragoikoa Ramiro I.arekin. Nork uste izango zuen horien ondokoak izango zirela Nafarroako erregetza hondatu-ko zutenak? Egia esan, feudalismo garaiko eredu haiek ez zuten zaintzen etikarik eta, jatorriz senideak izan arren, ezin

elkarri amore eman eta, nor gehiagoka, guduaz baliatzen ziren.

Adibidez, Bizkai-Gipuzkoetan Oñaz eta Ganboarren arteko guduketak baliatu ziren Gaztelakoak, talde baten alde jokatzuz eta elkarren arteko zatiketa geroz handiagoak bultzatuz, harik eta lurralde guztiaren jabe egin ziren arte. Gerroago, gauza bera egingo zuten Nafarroan, Agramont eta Beaumont taldeekin.

Baina, ez ahaztu noraino iristen zen Nafarroako erresuma. Nafarroako errege García Sánchez V.a “Naxerakoak” 1051.ean eman zien Bizkaiko monastegiei Pribilegio berezia eta Santxo VI. nafar errege “Jakitun” hark Durangoko nekazariei foruak. Hala ere, aldi hartan oraindik bakeak egin ezinik zebiltzan.

Erdi Aro garaian Nafarroa eta Gaztelako erresumen artean piztu ziren guduak Bizkaiko jauna noraezean jarri zuten eta, nolabait baketzeko, elkarren arteko mugak jarri zituzten.

Horrek eraman zituen, XII. mendearen azken aldera, babebiderako marka erabakitzera, 1179. urtean elkarren artean hitzarmen bat onartuz, Karolingioen erara; hau da, lehena-goko Marka Hispanikoaren antzera jarri zuten muga “*Inter Bizcariam et Ipuzcuam*”; Itziartik Durangoraino eta Araba barnera arte. Tarte-muga horretatik zetorkigun Markina izena Debarroaren barrenaldeko eta Artibai ibarreko herriek osatzen zuten barrutiarentzat: Elgoibar (Mendaro eta Astigarribira arte), Eibar, Plaentzia (Soraluze-Erlaibia), Xemein (oraingo Markina) eta Etxebarria.

Hala ere, Gaztelako errege Alfonso VIII.a ausartu zen, Hitzarmen hura hautsiz, 1200. urtean ekintzak aurrerago eramatera, eta Araba eta Gipuzkoa bereganatzeaz batera marka hartaz jabetu zen, Debarroa Gipuzkoako probintziari itsatsiz. Handik hamalau urte geroago Durangaldea Bizkai-ko jaunari eman zion, nolabaiteko adiskidetasuna sortarazi nahirik. Eta zehaztasun handirik ez izan arren, uste dut Ar-
tibai aldea ere orduan pasatu zuela Bizkaira.

Jakin bedi, abertzaletasunak berez ez duela eramaten herri bat bere burujabetzaren alde borrokatzera, inperialista erako beste aberri batek horretara behartzen ez badu.

Hala ere, esan beharrekoa dut, Gaztelako lehen errege haiek gure probintzietan Batzar Nagusiek aspalditik zituz-
ten foruak errespetatu zituztela, eta elkarren artean aski on-
gi konpondu zirela. 1812. urtean Cadizko Konstituzioa onartzean ere partaide izan ziren Batzar Nagusiak. Baina, 1820. urtetik, hiru urtez, liberalak nagusituz eta Frantziako politikaren arauak jarritz Batzar Nagusiak kentzen hastetik hasi ziren elkarren arteko iskanbilak.

Ordurako ohartua zen Manuel Larramendi, gure Argia-
ro edo Ilustrazioaren sarrera ekarri zuen gizon argi bezain zorrotza. Horretaz irakurgarria da, lehen ere aipatu dugun legez, J. Ig. Tellechea Idígoras-ek bere sarreraz, oharrez eta hitzatzeez argitaratu zuen Larramendiren *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* (1983) liburua. Eta argitaratzaileak bere sarreraren XLIV-XLV orrialdeetan dioena kontuan hartzekoa da.

Larramendi berberak zioen, 275. orrialdean agertzen denez: “Errege-kontseju nagusiaren buruak agin dezan, ta hau are debeka dezan, Hiriak elkarganatzea ta behar zan bezala biltzea, ahalik balu ta iñoiz izandu baleu bezala, Fuero

gureak ematen digun eskua kentzeko eta itxitzeko bidea? Baña zergatik horrela dabiltzan, berak dakite; baita beste guztiok ere badakigu! Alabaiñan agerian zebiltzan. Estali behar; ez behar: estali nahi, ezkuta ezin zitekeana ta Gipuzkoari zekarrena bidegaberik latzena ta miñena”. Horrez gainera, 276. orr. berriz: “Badakite bada horrelako aginteak eskatzea, ta erakartea, dala goitikan behera gure fueroa haustea: eta ez dirala egin beharrak, baizik huts-hutsik obeditu beharrak. Badakite, ez gobernariak ezen ez eta harekin batean bere bilguma osoak ere, ezin kenduko digula fueroak ematen digun eskua, libertadea ta bidea”.

Irakurgarria, baita ere, liburu horretaz J. Antonio Ayestarán Lekuonak dioena. Ikusi besterik ez dugu 1984an Eusko Ikaskuntzaren *RIEV* aldizkarian XXIX. zenbakiko 107-113. orrialdeetan idatzi zuena.

Gai honetaz oso gomendagarria deritzat Gregorio Monrealek hain argi eta zehatz *Deia* egunkarian, 2000ko martxoaren 27an, eskaini zigun artikuluari, “De la acometida mediática y sus antecedentes”. Hor ikus genezake historiagile askok eta askok zein premiazkoa duten historia ezagutu beharra eta gai horietan zentzuz jokatu beharra.

Bidasoaren bi alderdietako euskaldunok elkarrengandik zatituago utzi gintuen Gaztelako erregeak, Irun eta Hondarribiaz jabetu zenetik.

Eta hizkuntzarekikoan zer esan? Gure euskara hor zen oraingo talde politiko guztiak sortu baino lehenagotik. Eta XVII. mendera arte, Europako mendebaldean, latina zen hizkuntza unibertsala eta Unibertsitate guztietan ikasketak egiteko beharrezko zena, oraingo Estatuek beraien hizkuntzak indarrez beharturik sartu arte. Gai honetaz, historiagile

direnek, beharrezkoa dute M.S. Anderson-ek Oxford-eko Unibertsitatean burutu zuen tesi hura ezagutzea: *18th Century Europe 1713-1789* izenburuz 1966an argitaratua. Uler-tzen ez dudana zera da, hain beharrezkoa den liburu hori hemengo historiagileek ez ezagutzea. Zeren gaur, gazteleraz irakurri ezinik ez dugu, Ricardo Haas-ek itzulia 1968. urte-an Mexikon argitaratu baitzen: *La Europa del siglo XVIII (1713-1789)*. Andersonek garai hartako jokabideak ongi es-tudiatuak zituen.

Hala ere, Espainian, 1978ko Konstituzioak ez zuen ja-rraitu Suitzakoaren bide eredugarria, ezta ONUk 1948. ur-tean giza eskubideez agertu zuen agiriaren 2. artikulua be-re orokortasunean adierazten duena ere. Baina oroigarriagoa dugu oraindik Unesco erakundearen *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* (1953), guztiontzat hain gomendagarria dena. Horiek guztiak kontuan harturik ida-tzi nuen *Euskararen ostarteak* liburuko lehen partean VI. kapitulua (ikus 60-69.-orrialdeak). Nire liburu honen aipa-men soilak ez du ezertarako balio, bertan agertzen nuena ulertu ezik. Baina horretarako ere elebiduna izan behar.

Hizkuntza guztiak dira errespetagarriak eta normalena da gu guretik joatea, besteak errespetatuz eta gurea errespe-taraziz.

DECLARACIÓN UNIVERSAL DE DERECHOS HUMANOS

El 10 de diciembre de 1948 la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó y proclamó la Declaración Universal de Derechos Humanos, cuyo texto completo aparece en las siguientes páginas.

Preámbulo

Considerando que la libertad, la justicia y la paz en el mundo tienen por base el reconocimiento de la dignidad intrínseca y de los derechos iguales e inalienables de todos los miembros de la familia humana;

Considerando que el desconocimiento y el menosprecio de los derechos humanos han originado actos de barbarie ultrajantes para la conciencia de la humanidad; y que se ha proclamado, como la aspiración más elevada del hombre, el advenimiento de un mundo en que los seres humanos, liberados del temor y de la miseria, disfruten de la libertad de palabra y de la libertad de creencias;

Considerando esencial que los derechos humanos sean protegidos por un régimen de Derecho, a fin de que el hom-

GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu eta aldarrikatu zuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala; bere testu osoa dator ondoko orialdeetan.

Sarrera

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurki ez dadin;

bre no se vea compelido al supremo recurso de la rebelión contra la tiranía y la opresión;

Considerando también esencial promover el desarrollo de relaciones amistosas entre la naciones;

Considerando que los pueblos de las Naciones Unidas han reafirmado en la Carta su fe en los derechos fundamentales del hombre, en la dignidad y el valor de la persona humana y en la igualdad de derechos de hombres y mujeres; y se han declarado resueltos a promover el progreso social y a elevar el nivel de vida dentro de un concepto más amplio de la libertad;

Considerando que los Estados Miembros se han comprometido a asegurar, en cooperación con la Organización de las Naciones Unidas, el respeto universal y efectivo a los derechos y libertades fundamentales del hombre; y

Considerando que una concepción común de estos derechos y libertades es de la mayor importancia para el pleno cumplimiento de dicho compromiso,

LA ASAMBLEA GENERAL PROCLAMA

la presente declaración universal de derechos humanos como ideal común por el que todos los pueblos y naciones deben esforzarse, a fin de que tanto los individuos como las instituciones, inspirándose constantemente en ella, promuevan, mediante la enseñanza y la educación, el respeto a estos derechos y libertades, y aseguren, por medidas progresivas de carácter nacional e internacional, su reconocimiento y aplicación universales y efectivos, tanto entre los pueblos de

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarrizko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela;

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarrizko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

BATZAR NAGUSIAK
GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN
UNIBERTSAL HAU EGITEN DU

herri eta nazio guztiak izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoez eta bai erakundeek. Adierazpen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezkeen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatu batuetako herrien

los Estados Miembros como entre los territorios colocados bajo su jurisdicción.

Artículo 1.- Todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos y, dotados como están de razón y conciencia, deben comportarse fraternalmente los unos con los otros.

Artículo 2.- 1. Toda persona tiene todos los derechos y libertades proclamados en esta Declaración, sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición.

2. Además, no se hará distinción alguna fundada en la condición política, jurídica o internacional del país o territorio de cuya jurisdicción dependa una persona, tanto si dicho territorio es independiente como si se halla bajo tutela sin autogobierno, o sufra cualquier otra limitación de soberanía.

Artículo 3.- Todo individuo tiene derecho a la vida, a la libertad y a la seguridad de su persona.

Artículo 4.- Nadie estará sometido a esclavitud ni a servidumbre; la esclavitud y la trata de esclavos están prohibidas en todas sus formas.

Artículo 5.- Nadie será sometido a torturas ni a penas o tratos crueles, inhumanos o degradantes.

artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. artikulua.- Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. artikulua.- 1. Gizaki orori dagozkio Adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen.

3. artikulua.- Norbanako guztiak dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. artikulua.- Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; debekatuta dago esklabotza eta esklaboen salerosketa oro.

5. artikulua.- Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

Artículo 6.- Todo ser humano tiene derecho, en todas partes, al reconocimiento de su personalidad jurídica.

Artículo 7.- Todos son iguales ante la ley y tienen, sin distinción, derecho a igual protección de la ley. Todos tienen derecho a igual protección contra toda discriminación que infrinja esta Declaración y contra toda provocación a tal discriminación.

Artículo 8.- Toda persona tiene derecho a un recurso efectivo ante los tribunales nacionales competentes, que la ampare contra actos que violen sus derechos fundamentales reconocidos por la constitución o por ley.

Artículo 9.- Nadie podrá ser arbitrariamente detenido, preso ni desterrado.

Artículo 10.- Toda persona tiene derecho, en condiciones de plena igualdad, a ser oída públicamente y con justicia por un tribunal independiente e imparcial, para la determinación de sus derechos y obligaciones o para el examen de cualquier acusación contra ella en materia penal.

Artículo 11.- 1. Toda persona acusada de delito tiene derecho a que se presuma su inocencia mientras no se pruebe su culpabilidad, conforme a la ley y en juicio público en el que se la hayan asegurado todas las garantías necesarias para su defensa.

2. Nadie será condenado por actos u omisiones que en el momento de cometerse no fueron delictivos según el Derecho nacional o internacional. Tampoco se impondrá pena

6. artikulua.- Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea.

7. artikulua.- Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea. Denek dute Adierazpen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragilean aurka babes berbera izateko eskubidea.

8. artikulua.- Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea.

9. artikulua.- Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesterratu.

10. artikulua.- Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikieriarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke.

11. artikulua.- 1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

2. Egintzak edo ezegiteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da

más grave que la aplicable en el momento de la comisión del delito.

Artículo 12.- Nadie será objeto de ingerencias arbitrarias en su vida privada, su familia, su domicilio o su correspondencia, ni de ataques a su honra o a su reputación. Toda persona tiene derecho a la protección de la ley contra tales ingerencias o ataques.

Artículo 13.- 1. Toda persona tiene derecho a circular libremente y a elegir su residencia en el territorio de un Estado.

2. Toda persona tiene derecho a salir de cualquier país, incluso del propio, y a regresar a su país.

Artículo 14.- 1. En caso de persecución, toda persona tiene derecho a buscar asilo, y a disfrutar de él, en cualquier país.

2. Este derecho no podrá ser invocado contra una acción judicial realmente originada por delitos comunes o por actos opuestos a los propósitos y principios de las Naciones Unidas.

Artículo 15.- 1. Toda persona tiene derecho a una nacionalidad.

2. A nadie se privará arbitrariamente de su nacionalidad ni del derecho a cambiar de nacionalidad.

Artículo 16.- 1. Los hombres y las mujeres, a partir de la edad núbil, tienen derecho, sin restricción alguna por

inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri zen zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

12. artikulua.- Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babes izateko eskubidea.

13. artikulua.- 1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.

2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

14. artikulua.- 1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babes bilatu eta izateko eskubidea.

2. Eskubide hau ezin izango da erabili delitu arruntek edo Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzek sortutako auzibideko egintza baten aurka.

15. artikulua.- 1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.

2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

16. artikulua.- 1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzekeo eskubidea du-

motivos de raza, nacionalidad o religión, a casarse y fundar una familia; y disfrutarán de iguales derechos en cuanto al matrimonio, durante el matrimonio y en caso de disolución del matrimonio.

2. Sólo mediante libre y pleno consentimiento de los futuros esposos podrá contraerse el matrimonio.

3. La familia es el elemento natural y fundamental de la sociedad y tiene derecho a la protección de la sociedad y del Estado.

Artículo 17.- 1. Toda persona tiene derecho a la propiedad, individual y colectivamente.

2. Nadie será privado arbitrariamente de su propiedad.

Artículo 18.- Toda persona tiene derecho a la libertad de pensamiento, de conciencia y de religión; este derecho incluye la libertad de cambiar de religión o de creencia, así como la libertad de manifestar su religión o su creencia, individual y colectivamente, tanto en público como en privado, por la enseñanza, la práctica, el culto y la observancia.

Artículo 19.- Todo individuo tiene derecho a la libertad de opinión y de expresión; este derecho incluye el derecho a no ser molestado a causa de sus opiniones, y el de difundirlas, sin limitación de fronteras, por cualquier medio de expresión.

Artículo 20.- 1. Toda persona tiene derecho a la libertad de reunión y de asociación pacíficas.

2. Nadie podrá ser obligado a pertenecer a una asociación.

